

...eta
Kitto!

2018-VII-13

1066 zkia.

Haur lapurtuak gurean ere

%
des
kon
tua
30

EGUZKITAKO BETAURREKOEN
bilduma
BERRI GUZTIETAN

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

www.multiopicasgipuzkoa.com

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

STOCK

AMAIERA LIKIDAZIOA

Ford Kondian, ez beste
inon, 18/07/30-era arte

8

Unit.

KUGA
TREND + 1.5
EcoBoost 120cv

20.900€



7 URTEKO
garantia

ARRISKU OROTAKO
ASEGURUA
DOAN

KUGA TREND + 1.5 EcoBoost 120cv

Kristal tindatuak + aleaziozko haunak 43,2 cm (17") + CD SYNC3 Soinu-sistema + AppLink ukipen-pantaila 20,3 cm (8") + Atzealdea ikusteko kamera + Nabigazio Sistema + Giltzik gabeko abio-botoia (Ford Power) + Eguneko LED argiak + Irteera bikoitzeko ihes-hodia + Bi gunetako aire-girogailua + Maldetarako abio-laguntzailea (HLA)



KONDIA
www.fordkondia.com

FORD KONDIA
Otaola Etorb., 22
EIBAR T. 943 202 091
M. 674 385 509

ZIORLA AUTOAK
Santamaña Auzoa, 19
IURRETA T. 946 815 569
M. 674 385 509

Eskaintza uztailaren 30era arte edo izakinak agortu arte da baliozkoa. Promozio hau ezin da beste eskaintza edo deskontu batzuekin pilatu. Zergak barne. Matrikulazio-gastuak ez daude barne. F.C. Bank-ek finantzatua. Kontsultatu baldintzak Ford Kondia kontzesionarioetan. Erakusten den argazkiak ez du zertan eskaintzako modeloa izan.

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belautegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Ana Aizpuru

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

– Erredakzioaren oharra –

Datorren barixakuan, **hilaren 20an, ikasturteko azken alea** kaleratuko dugu. Kontuan hartu, beraz, zorion-agurrak eta bestelako edozein informazio kaleratu nahi baduzue.

Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzeza hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MARDOTU. - Loditu, sendotu. "Ondo jan eta nasai bizi, berez dator mardotutzia".

Haurdun laga. "Ezkon-barri horrek mardotu dau emazia".

MARDUL. - Sendoa, indartsua, osasuntsua. "Gure seme mardulak dotore urten dau etxetik erromerixarako asmu".

astean esanak

"Inoiz ere ez nintzen dopatu; zeozer ematen zidatenean, ez nuen hartzen eta kitto! Bi kafe, kopa erdi cognac, Cola Aslier eta Karmengo ura zuen bidoiarekin nahikoa nuen nik. Zergatik nenbilen hain ondo bero egiten zuenean? Halako egoeratan arriskutsua zelako zeozer hartzea, eta orduan aurkariak ere ez zutelako ezer hartzen. Virenque igotzailea? Nire ondoan, ezer gutxi. Pantani? Zer hartzen zuen hark: ura edo gasolina? Poulidor? Ez zen igotzailea, inoiz ez zidan irabazi. Guk behintzat askatasuna genuen. Orain pinganiloari lotuta doaz, emisorari: zaldia dirudite, mokaduaren atzetik"

(FEDERICO M. BAHAMONTES, TXIRRIKINARIA)

"Uste dut kalea arriskutsua bihurtzen duela umerik ez izatea bertan; eurek dute ahalmena kalea seguruagoa egiteko, kalean gehiago ibiliko balira helduok kontu handiagorekin ibiliko ginatkeelako. Hiri handietan ezin dela? Ez dut sinesten. Gertatzen dena da gure seme-alabak tontoak direla uste dugula: gurekin daudenean, orduan tontotzen dira, gure jarrera kontraesankorrak ez dituztelako ulertzen. Gu etxetik irtetzen garenean norabaitera joateko izaten da eta, gure orekarako, hobe ibilbidean ezer ez bada gertatzen; umei, alderantziz, ibilbidea interesatzen zaie, denbora galtze hori, geldialditxo egin, zeozer hartu lurretik. Horregatik konportatzen dira hobeto bakarrik daudenean"

(FRANCESCO TONUCCI, PSIKOPEDAGOGOA)

"Guztia tongoa da, edo tongo erdia. Thailandiakoak, harrapatutako ume horienak, tongo usaina du. Muntai hutsa, ezin da sinistu. Globalizatutako kate eta telebista guztiak, CNNtik hasita, arrisku handiko erreskate dirudiena eskaintzen digute, aho zabalik lagatzeko moduko erraztasunarekin. Kamara guztiak han, Andaluziako kostaldera heldutako euren adinekoei inolako kasurik egiten ez zaien bitartean. Entzierroak ere, zer dira ba? Erdi tongoa baino ez! Orain dela urte batzuk beldurra ematen zuten zezenek gaur egun pilulez beteta ballet saioa baino ez dute eskaintzen. Kamara ugari ezer ez gertatzeko: balkoietan publizitate estatikoa, zezenak euren errailetatik, mozoak markak iragarriz kamisetetan... Nire sofatik, behintzat, horrela ikusten da"

(RAIMUNDO FITERO, KRITIKARIA)



JON MIKEL MUJIKA

Munduko kopa

Dagoeneko jabetu ez bazineten, Errusian futbol Munduko Kopa ari da ospatzen. Azken egunotan, zaila da ditxosozko txapelketa honek zipriztindu gabeko espaziorik aurkitzea gure egunerokotasunean, eta ez da harritzekoa.

Hilabete eskas irauten duen ekitaldi honen antolaketa, diru eta interes agortezinak daude murgilduta. Egunerokosten ari gara munduko koparako bereziki eraikitako estadioetako luxuzko palkoak lepoaldea ongi gizendutako mandatariz beteta. Eta planeta osoa baloari begira dagoen bitartean, oharkabean ari dira igarotzen soropiletik kanpo jokatzeko ari diren benetako partidak. Zenbat itzalpeko itun, zenbat negozio mamitsu lotzen ari ote dira "betikoak", ez kamera, ez arbitro eta ez VAR-ik gabe. Zer pentsa ematen du adibidez FIFAk, euren hitzetan irabazi-asmorik gabeko erakundeak, 2.000 milioi dolarreko etekina lortzea espero izatea txapelketa honetatik bakarrik.

Eta gurean, gisa honetako txapelketa bat ospatzen den bakoitzean bezala, Euskaldunok inbidia puntu batekin begiratzen diegu bertako herrialde eta zaletuei. "Guk ere han behar genuke!" "Islandia heldu bada, gu zergatik ez!" eta horrelakoak maiz entzun eta esan ditut azken hilabeteetan. Harro astinduko nuke gure ikurrina Errusian noski. Baina nire buruari galdetzen hasi natzaio: Zirku horren parte izan nahi al dut?

Argi ibilli etxietara ura aztertzerako doazela diñuen saltzailliekin

Kontsumitzaillien Informaziñorako Udal Buleguak aste honetan ohartarazi dabenez, adi ibilli bihar da egunotan Eibarko etxietara bisitak egiten dabizen saltzailliekin batzuekin: "Gasteizko ur araztegi enpresa batekuak dirala-eta, etxian txorrotetik urtetzen dan ura aztertzen ari dirala esaten detse jendiari. Edateko baso bat ur eskatu eta, ez dakigu zelako produktua bota eta gero, ur hori edaterik ez dago. Kontuz, baiña, dana guzurra dalako. Nahi daben gauza bakarria 3.000 euro balixo daben araztegi edo depuradoria erostia da". Kontsumo Bulegotik argitu dabenez, "Eibarren kontsumitzen dan urak bete biharreko osasun-berme guztiak betetzen dittu eta egunero kontrolatzen dabe horren arduria dakenak". Edozelan be, baten batek saltzailliak kontautakua siñestu eta ur-araztegi erosiz gero, hori bueltatzeko 14 eguneko epia daguala gogorazi nahi detse herritarreri.



Udal Kirol Patronatuak eta Aldundiak Unbeko zelaixak barrirtuko dittue

Miguel de los Toyos, Eibarko alkate eta Udal Kirol Patronatoko presidentea eta Denis Itxaso Kultura eta Kiroletako Departamentuko diputatuak hitzarmena siñatu eben martitzenian, Unbeko bi zelaixetan bedar artifiziala aldatzeko. Proiektuaren kostua 289.0000 eurotakua da eta Aldundiak 105.000 euro jarriko dittu. Laguntasuna Kirol ekipamenduak birmoldatu, berritu, ordeztu eta lekualdatzeko 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planaren barruan sartzen da eta, Itxasok nabarmendu ebanez, "planak 55 udalerriri eta 567.000 biztanleri eragiten detse, hau da, Gipuzkoako biztanlien % 80ri. Guztira 53,8 milioi euroko inbersiñua egin da eta Aldundiak 10,6



Alkatia Denis Itxaso diputatuarekin Unbeko instalaziñuen aurrian.

millioi euroko laguntza emon dau". Erakunde bixetako ordezkariak lankidetzaren inguruko baloraziño oso ona egin eben.

Errekatxu berroneratzeko proiektuak argi berdian

Krisixak eraginda 2010ian bertan behera lagaz Errekatxu berroneratzeko proiektuari atzera be heldu detsa eraikuntza-enpresa batek, Al-



tuna y Uriak. Asmua etxe zahar gehixenak eraixtia eta etxe barrixekin urbanizaziñua jasotzia da eta, horrekin batera, plaza bat eraiki eta irisgarritasuna modu nabarmenian hobetzia nahi dabe.

Biharrak Bista Eder eta Errekatxu kaliaren beheko aldiaren artian daguzen etxe zein lokaleri (Hirurok taberna dagan etxiari eta aldamenekueri) eragingo detse. Etxe horrek bota ondoren, 160 bat etxe barri eraikitzeko asmua dake. Horretako 121 salmenta librekuak izango lirakez eta gaiñontzekuak, barriz, oingo jabieri ordezeko bixitokixa eskintzeko erabiltzia aurreikusit dabe. Eraikuntza enpresakuak eta Udal ordezkariak aste honetan bildu dira bota nahi dittuen enpresa eta etxietako jabiekin, dittuen planen barri emoteko eta uda ostian atzera be billeria egitteko asmua dakela aurreratu dabe.



Famelixiak Algerian atxikituta dakan neskia askatzeko eskatu eben lagunak zapatuan

Ustez gogoz kontra ezkontzeko Algerian bere famelixakuak atxikituta daken Ljadra Said Hannuha, Eibarren bizi dan gaztiaren egoeria azaldu eta salatzeke asmuarekin, lagunak deittuta zapatuan kontzentraziñua egin zan Untzagan. Ekaiñaren 9xan neskaren lagun batek Eibarko Ertzaiñetxian egindako salaketaren arabera, Ljadra amarekin batera Algeriara, El Aaium kanpamentura oporretan jua zan 2017ko azaruan eta, harrezkero neskaren barririk ez zekala eta, kezkatuta Whatsapp bidez bere lagunarekin kontaktuan ipi-

ñi zan eta, neskak erantzun zetsanez, famelixakuak dokumentaziñua eta telefonu kendu eta etxian, gela batian giltzaperatuta dake. Lagunak zapatuan esandakuaren arabera, mezuak mugikorren bat lortzen ebanian jasotzen zittuan bakarrik eta oin dala bi hillebete guztiz eten zan hartu-emona. Lagunak kontatzen zetsena larrixa zala ikusitta eta Ljadrak berak hala eskatuta, kasua Ertzaintzan salatzeke erabagixa hartu eben. Ertzaintzak kasuaren barri emon detsa Espaiñiako Poliziari eta ikerketia zabalik dago.

Azaleko minbizixaren kontrako kanpaina

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarreak Untzagaraiño ekarri eban azaleko minbizixaren aurkako prebenziño kanpaina eguaztenian. Alkarteko boluntariak eta kualifikaziñua daken bihariñaak Gipuzkoako hondartzak ez eze, kostaldekuak ez diran herri batzuk be bisitazen dit-



tute, tartian Eibar, eta goiz osuan jardun eben Udaletxe parian aparkautako furgonetan eta aldameneko mahaxetan jendia atenditzen. Animau ziraneri azalaren melanina neurtu zetsen eta, horren arabera, eguzki izpiekiko gomendatzen daben esposiziño-denporia zein zan be azaldu zetsen. Horrekin batera, eguzkixa arrisku barik zelan hartu bihar dan azaldu eta azalaren automiaketa egitteko argibidiak emon zetsazen.

autuan

1968xan JAIXOTAKUEN JAIXA

Aurten 50 urte bete edo beteko dittuenak urriak 20xan ospatuko dabe euren jaixa. Bazkarixa ez eze, egun osorako programia prepatzen dihardue eta jua nahi dabenak 90 euro sartu biharko dittu, ES57 2100 1883 9101 0064 7858 kontu korronte zenbakixan, izenabizenak argi azalduta.



POLIO ALKARTEKUEK BATZARRA

EPE- Euskadiko Polio Elkarteak urteko batzar nagusixa egingo dau bixar Eibarren, Untzaga jubilau etxian (2. pisuan, kafeterixaren aldameneko gelan), 11:00etan. Sarrera libria izango da, nahi daben guztiendako.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p> 	<p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO Funeuskadi</p>	



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ **943 12 02 00** Faxa: **943 12 02 04**

1) Kardiologia	10) Barne Medikuntza
2) Zirugia	11) Radiologia
3) Dermatologia	12) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Traumatologia
5) Analiis Klinikoak	14) Koloproktologia
6) Ortodontzia	15) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	16) Foto-depilazio Unitatea
8) Pediatria	17) Ginekologia BERRIA
9) Psikiatria	18) Psikologia BERRIA

Konstituzionalak ez dau onartu "swaps" produktuen inguruko Udalaren errekurtsioa

Aurreko astian jakin zan Eibarko Udalak "swap" dalakuen auzixan bere kontra emondako sententziaren kontra aurkeztutako errekurtsioa Auzitegi Konstituzionalak tramitera ez onartzia erabagi dabela. IMESA Eibarko Udal Inmobiliariak Santander Bankuarekin siñatutako finantza operaziñuari lotutako prozesua 2004an hasi zan. Hipoteka-kreditu bateri lotuta erositako "swap" horrek espero ziran emaitzak emoten ez zittuela ikusitta, 2010ian produktuekin siñatutako hitzarmena bertan behera lagatzen ahalegindu zan Udala, baiña Santander Bankuak ez zetsen holakorik egitten laga eta 2013an Udalak demanda sartu eban epaitegixetan, swap dirrelakuak balio gabetzeko eskatzen eta Do-

nostiako Lehen Instantziako 5. Auzitegixak Udalari arrazoia emon eta kontratua balio gabetu eban. Halanda be, bankuak 870.000 euro bueltatzera derrigortu eban Udala. Ointxe ezeztatu daben Santander Bankuaren kontrako demanda hori Udalari geratzen jakon azken aukera zan eta, hortaz, ezin izango dabe kontrako beste errekurtsorik egin. Gauzak holan, Udalak Santander bankuari pagatzeko falta jakozen 197.000 euroak pagau biharko dittu.

Horren barri izan bezin laster hasi ziran oposiziñoko alderdixak pasautakuaren inguruko kritika gogorak egitten. EAJ-PNV eta EH Bilduko ordezkariak bat datoz honen inguruan egitten daben irakorketan. Diñenez, IMESA ix millioi bat euro gal-



du dittu "2004an eta 2005ian kontratatutako produktu toxikueri buruzko epaiketari, eibartarron diruarekin espekulatzia-gaittik" eta PSE-EEk kudeaketa txar honen aurrian erantzukizun politikuak hartu biharko litzuzkela pentsatzen dabe, "IMESA operaziñua egin eban sasoiari presidentia Iñaki Arriola zalako". Eta Eibarko PP-ko Javier Nuñezek be gauza bera pentsatzen dau: "Ezin leike millioi bat euro galdu eta, beste barik, pasautakua ahaztu, iñolako ardura personal edo politikorik egon barik".

Aurten be propagandia egitten!

Gure ohiko propagandistak aurten be ez gaittue ahaztu eta, barixakuan astekarixa jaso eta Iruñe-ara abiatu ziran, han udaletxe aurrian argazkixa etara eta guri bialtzeko. "Oinguan, gaiñera, berezi-za izan da: gure eskuetan Josean Alberdi Goma gure lagun haundixaren irudixarekin izan garalako Sanfermiñetan", diñue Azitaingo Izuak. Eskerrik asko egindako publizidadia gaittik eta segi holan!



San Juan sorbak bedeinkatu zittuen Azittaiñen

Eibarren ondo sustraituta dagan ohittuari eutsi detse Azitaingo parrokixan eta, aurten be, San Juan egunian ospatutako mezan sorbak bedeinkatu zittuen. Sorbak bedeinkatzeko ohitturia dakenak azaldu deskuenez, "bedeinkatutako sorbak etxe eta basarrixetako atietan ipintzen dira, hurrengo urteko

San Juan bezperako suan erre arte. Udaren hasieran bedeinkatzen dittugun sorbak basarri eta naturarekin dakagun loturia gogoratzen deskue eta fededunok eurengandik jasotzen dogunarengaittik eskerrak emon eta zaintzeko konpromisua hartzen dogu".



Euskeraz Primeran! udako merkealdixen azokan

Eibarko Udako Merkealdixen Azokia datorren astian egongo da martxan, eguaztenetik barixakura bittartian Toribio Etxebarria kalia. Goizeko 10:00etatik 20:00etara zabalduko dittue postuak ediziño honetan parte hartuko daben 32 establezimenduak (26 dendak karpan egingo dittue eskintzak eta gaiñontzekuak dendan bertan).

Aurten be ...eta kitto! Euskara Elkarteaz azokan egongo da, "Euskeraz Primeran!" kanpaiñarekin, "merkataritza eta ostalaritza euskeriaren erabilleria bultzatzeko". Gerturatzen diranak hiru konpromiso hartzeko aukeria izango dabe oinguan: "Euskeraz ez dakittenak denda eta tabernetan lehen berbia eta agurra euskeraz egittia; dakittenak, barriz, denda eta tabernetan euskeraz eskatzia eta, lagunekin batera egon ezkerro, eurekin be euskeraz jardutia". Konpromisua hartzen dabenak erosketa zerrendia osatzeko imandun bloka jasoko dabe opari moduan, ho-



nako goiburuarekin: "Dendetan ere Euskeraz Primeran!". Hiru egunetan egongo da "Euskeraz Primeran!" kanpaiñaren txokoa azokan eta parte hartzen daben guztiak Eibar Merkataritza Gune Irekiak emongo daben 100 euroko erosketa-txartela irabazteko aukeria izango dabe. Horren zozketia uztailaren 20xan egingo dabe, 13:00ian.


Etenbariko jaixa San Kristobalen asteburu honetan

Herriko jaixen sasoian aurrera goiaz eta asteburu honetan San Kristobal auzokueri ospatzia tokauko jakue. Atzo emon jakon hasieria jai-batzordiak preparau daben egitarau zabalari eta, domeka gaber arte, jaixak ez dau etenik eukiko, adin eta gustu guztietarako jarduerak egingo dittue-eta.

Atzo futbolin eta igel-toka txapelketak jokatu zittuen, baiña programako potoluena gaurtik aurrera etorriko da. Arratsaldeko 19:00etan botako dabe txupinazua eta orduan hasiko dira jaixak. Gero, beste barik gozatzia izango da ardura bakarra. Umiak, adibidez, dardo-txapelketan lehiatzeko aukeria eukiko dabe, 19:30xetan Fray Martin Malleako parkian eta, aldi berian, auzoko tabernak tortillia, txorizua, urdaiazpikua eta gaztaia banatuko dabe. Gabian aillegauko da muskia: 23:15xetan Sonic Toys taldiak kontzertua eskinduko dau eta gero, 00:15ean, Band Jovi taldiak Bon Joviren abes-tixen bertsiñuak joko dittu.

Rock gaba pasatu eta gero, goizian goiz hasiko da zapatuko egitaraua: 10:30xetan haurren marrazki-lehiaketia egingo da eta, ordubete geruago, 11:30xetan, haurrendako Molto motorren kontzentraziñolasterketia egingo dabe. Motorrekin jarraituta, San Kristobal go jaixeri ukitu berezixa emongo detse Lambrettak. 12:15etan sandia-jana egingo da Aizarnako parkian eta 12:30xetan Lambretta motorrak auzora aillegatuko dira, XV. Igoeran. Gero, San Kristobal go plazan Lambretta motorren erakuske-

tia egingo da. Gaiñera, motorren desfilea eta erakusketia giritzeko, 12:45etan triki-poteua hasiko da. Ondo bazkaldu ostian, txapelketa bi jokatuko dira: batetik, 16 urtetik behera-kuendako igel-txapelketia hasiko da 18:00etan eta, bestetik, nagusixendako dardo-txapelketia jokatuko dabe 19:00etatik aurrera, San Kristobal go plazan. Mexikoko doiñuak hartuko dabe txandia ondoren: Mariachi Dominguezek "callejonada" eskinduko dau 19:30-



Jaixen aurkezpena aurreko barixakuan egin zan Otarra soziedadian.

xetatik aurrera. 21:00etan herri-afarixa egingo da plazoletan, gaba bero datorrela eta, tripia ondo betetzia komeniko da eta. Izan be, hiru kontzertu egongo dira zapatu gabian.

23:30xetan Extraño Veneno taldiak kontzertu akustikua eskinduko dau eta 02:00xetan, barriz, talde berak kontzertu elektrikua egingo dau, baiña bixen erdixan izen haundiko talde bat egongo da: 00:15etan hasiko da hainbeste abesti ezagun emon dittuan Mocedades taldiaren kontzertua. 1968. urtiz geroztik ixa etenbako martxan dabiz bilbotarrak eta bere abesti arrakastatsuenak zuzenian entzuteko aukeria eukiko dogu. Eta ohera pozik juateko edo festan jarraitu nahi dabenak

indarrak hartzeko, 02:30xetan txokolate-jana egongo da.

Domekan ez da egongo bixamona eukitzeko aukerarik: 11:00etan ohe-elastikuak eta tirolina jarriko dabe Fray Martin Malleako parkian eta 12:00xetan hildakuen aldeko mezia egingo da; 12:30xetan paella-txapelketia hasiko da plazoletan eta, paellak preparatzen dituen bittartian, trikipoteua (13:00ian) eta luntxa (13:30xetan) egingo dira, 13:45etan sari-banaketia hasi aurretik. Eta arratsaldian umiak izango dira protagonista: 17:30xetan freskagarririk eta gozokirik banatuko detsez umieri, 19:00etan haurrendako lehiaketa eta jolasetan parte hartu dabeneri saririk banatuko detsez, 19:30xetan DJ Arabarekin festa hasiko da, 20:30xetan rifaren zozketia egingo dabe eta 22:00etan San Kristobal go jaixeri agur esateko ordua aillegauko da, jaixen amaierako trakarekin. Datorren urtian gehixago!



AGUSTINA ASKASIBAR LAUZIRIKA *2018ko uztailaren 1ean hil zen*

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena
gure nahigabean dolua erakutsi
eta lagundu diguzuen guztioi.



Goruntz abesbatzaren ahotsak ixildu dira

la 30 urteko ibilbidea eta gero, uztailaren 1ean kantatu zuen azkenengoz Goruntz abesbatzak Amañako El Salvador elizan. Gutxienez azken 20 urteotan urtero hartu dute parte Goruntz abesbatzako kideak Amañako jaietan eta, horregatik aukeratu zuten egun eta toki hori euren agurra izango zen azken emanaldirako.

Urteak joan urteak etorri, aspaldi ez da kide gazte-rik sartu koruan eta, erreleborik ez dagoela ikusita, gaur egungo kideek abesbatza bertan behera lagatzeko erabakia hartu dute. Goruntz abesbatzaren sorreratik taldiarekin kantuan ibili den Josefina Perek azaldu digunez, *“gu urteetan aurrera goaz, jende berririk ez zaigu gerturatzen eta, gainera, astean birritan entsegua izateak nahitaez joateko konpromisoa izatea eskatzen digu abesbatzako kideei zein zuzendariari. Gauzak horrela, Goruntz abesbatza agurtzeko ordua ailegatu dela pentsatu genuen”*.

Goruntzeko kidearen berbetan, *“penarekin, baina era berean egindakoarekin pozik”* agurtu dira. Eta pozik egoteko arrazoirik ez zaie falta, ez horixe! Gauza guztietan bezala, abesbatza sortzeko bidean oztoporen bat edo beste gainditu behar izan zuten: *“Karmelitan abesten hasi ginen, parrokiako abesbatza moduan. Baina parrokiako emanaldiak albo batera laga barik ere, hortik*

kanpora kantatu nahi genuela esaterakoan, orduan elizako arduraduna zenak ez zuen gure proposamena begi onez ikusi eta bakarrik parrokian kantatzea nahi zuela erantzun zigun. Gauzak horrela, guk beste bidea hartuko genuela erabaki eta horrela jaio zen Goruntz abesbatza”.

Angela Zabaletaren zuzendaritzapean, musika inoiz ikasi bariko baina abesteko zaletasuna zuen andra taldearen eskutik sortu zen Goruntz, 1992. urtean. Gogoratzen dabenez, *“Angela gure lehen zuzendaria izandakoa aurretik Koro Maitean ibilitakoa zen eta berak bazituen musikaren inguruko ikasketak. Berak gidatuta, orduan ikasi genituen elkarrekin abestu ahal izateko jakin beharreko guztiak. Berak esaten zigun bakoitzak non abestu, ahotsak bereizten eta lantzen ikasi genuen... gauza asko erakutsi zizkigun. Denak uniforme modukoarekin jantzita joatea ere bere ideia izan zen, bazekien eta beste abesbatzak hala egiten zutela”*.



Eta Zabaletaren atzetik izan dituzten zuzendari guztiei ere euren esker ona azaldu nahi diete, *“denekin asko ikasi dugulako”*. Goruntz abesbatza zuzendu dutenen zerrendan Pedro Palacin, Ander Simal, M^aJesus Agirre eta 2011z geroztik Goruntz zuzendu duen Lorea Ojanguren daude. Azken hau, gainera, zuzendari kargua hartu baino lehen, Goruntzeko kidea izan zen.

Eta zuzendariekin batera, Goruntzek bidelagun izan dituen gogoratu nahi dituzte: *“Jose Ramon Orozko, ahal zuen guztietan gure entseguetara etortzen zen eta beti esaten zigun merito handia genkagula, musika ikasi barik kantatu egiten genuelako eta hori lortzea ez zelako erreza. Eta, horrekin batera, Aita Jose Munitiz ere gogoratu nahi dugu, bera beti egon zelako gurekin, European*

zehar egin ditugun bidaiak antolatzeko laguntzen eta gurekin batera bidaiatzen”.

Goruntzen emanaldien agendan, urtero urtero errepikatzen ziren hainbat emanaldi eskaintzeko orduan ez dute inoiz kale egin: *“Amañako jaietan eskaintzen genuen emanaldiaz gain, Eibarko Bakillauaren Kofradixiak antolatzen duen ekitaldian eta Goi Argi elkarteak San Jose egunean egiten duen ospakizunean parte hartzen egon gara betidanik”*.

Eibartik kanpora ere, urtero atzerira egiten zuten bidaietarako, urrutiraino eraman dute gure herriaren izena eta euren kantuen ere mundu osoan zehar entzun dituzte. Errepertorioan, *“elizako kantu batzuk, baina batez ere euskerazko herri-kantuek”* abestu dituzte: *“Txoria txori”*, *“Ikusi mendizaleak”* eta era horretako beste asko Euskal Herri-tik kanpora ezagutzera eman dituzte. Horrenbeste urte eta gero, herrialde askotan jardun dute kantuan, baina oso modu berezian gogoratzen dute Nueva Yorken, Saint Patrick katedralean artzapezpikuak ospatutako mezan eskainitako saioa: *“Benetan oso oso berezia eta hunkigarria izan zen, sekula ahazten ez den horietakoa”*.

Agurrarekin batera, Goruntz abesbatzaren historian lagundu dieten guzti-guztietara eskerrak eman nahi dizkiete: *“Eibarko Udalari, Kultura sailari, komunikabideei... eskerrik asko bihotz-bihotzez!”*.



Abesbatzak San Andres elizan eskainitako emanaldia azkenetarikoa izan zen. Mikel Askasibar

EUROPAKO PARLAMENTUAN IZAN BERRI DA ENDOMETRIOSIAREN ERREALITATEA EZAGUTZERA EMATEN

CRF Amostegi erreferente izaten jarraitzen du zoru pelbikoaren disfuntzioetan

Ekainaren 25ean eta 26an izan zen Estrasburgon Jose Miguel Amostegi endometriosiaren inguruan osatutako adituen batzordean, Francisco Carmona Bartzelonako Hospital Clinic-eko Ginekologia buruarekin batera. Jose Miguel Amostegi Zoru Pelbikoko Fisioterapiako Espainiako Elkarteko presidentea da eta espezializatu egin da "ezkutuko" gaitz hori tratatzen. Bide beretik jo du Mikel bere semeak, Jose Miguelen esanetan "ni baino askoz prestatuagoa eta handik hona arlo horretako formazioa eskaintzen diharduena". Eurekin egon aurreko asteburuan, esaterako, Iparaldean izan da Mikel batzar batean eta, horrez gain, "Frantzia, Brasilen eta Mexikon ere" badihardu. Irailean Txinara joaten hasiko da. CRF Amostegi zoru pelbikoaren disfuntzioetako erreferente-zentroa da gaur egun eta Txagorritxu, Gurutzeetako Ospitala, Madrilgo 12 de Octubre eta Leongo sendagile eta fisioterapeutek jotzen dute

bertara formatzera. Graduosteko eta masterrak ere eskaintzen dituzte Madril, Malaga, Bartzelona eta Zaragozako San Jorge unibertsitateetan.

Endometriosiak ugaltzeko adinean dauden emakumezkoen %15-20 ingururi eragiten die eta eguneroko bizitzan egiten diren jarduera asko egitea galeratzen edo, behintzak, zailtzen die. "Atzean gertutako hilerokoaren isurian aurki daiteke arazoaren muina. Kronikoa den min pelbiko hori hilerokoarekin, sexu-harremanetan, txiza egiterakoan eta heste-arazoetan azaldu daiteke". Amostegin eskaintzen dituzten tratamenduekin min hori arintzea bilatzen dute eta, horrekin batera, emakume horiek ugalkortasun ahalmena ez dezatela galdu, min horrek antzutasuna ere eragin dezakeelako. Aita-semeek azpimarratzen dute gaitza ez dela puntuala, kronikoa baizik: "Hortik datoz askotan diagnostiko desegokiak. Endometrosia ez



Jose Miguel eta Mikel Amostegi, fisioterapiari adituak.

baduzu identifikatu, tratamenduak ere ez du funtzionatuko. Gainera, ohikoa izaten da entzutea mina izatea normala dela; hori ez da horrela". CRF Amostegin tratamendu funtzionala eskaintzen dute, "egokiena multidisziplinaria dela badakigun arren. Baina gu funtzioan saiatzen gara, giharra eta faszia-ren egoera eta posizioa hobetzen".

Bizi-kalitatean aurrera egiten

Tratamendu egokienari begira, orokorrean kirurgia erabiltzen da foku endometriosoiko garrantzitsuenak ezabatzeko eta horri, hormona bidezko tratamenduarekin batera, espezializatutako fisioterapiak laguntzen dio: "Fisioterapiak ez du endometrosia sendatuko, baina bai haren sintomak -mina zein hantura- eta kasu batzuetan ugalkortasun eza baita". Gehienetan esku-terapia eta irati-frekuentzia-Indiba dira erabiltzen diren teknikak, "beti ere gaixoari egokitutako ariketekin". Horrelakoak ez dira merkeak izaten, eta hortik Estrasburgon egindako ahallegina gaitza azaleratu eta osasun publikoari horren ardurua hartzeko deia. Lanean jarraitzeko adituen taldea osatzea lortu dute behintzat eta horrek eskainiko du emaitzarik. Amostegitarrek pozik daude hainbatek euren eskuetatik jasotako hobekuntzarekin: "Gaixoek bizitza-kalitatean hainbeste irabaztea modukorik ez dago" diote, atzean eurekin fisioterapia egindako gazte haurdun batek bidalitako argazkia lekuko dutela.



Jose Miguel Amostegi Europako Parlamentuan.



Mikel Amostegik bere arloko formazioa eskaintzen du hainbat herrialdetan.

Tekniker Fundazioaren ekimenez sortu zen Teknimap Energia eta Ingurumena 1993. urtean. Industriari zuzenduta dagoen ingurumen-aholkularitza eskaintzen du enpresa eibartarrak eta ekitaldi berezia antolatu zuen joan den eguenean, hilaren 5ean, Armagintzaren Museoa 25. urteurrena ospatzeko. Felipe Guisasola zuzendaria eta Mireia Ugarteburu dira Teknimapen hasieratik dabiltzan langile bakarrak, eta 25 urte hauetako errepasoa egin digu zuzendariak.

FELIPE GUIASOLA (TEKNIMAP enpresako zuzendaria):



*Mireia Ugarteburu,
 Felipe Guisasola
 bezala, proiektuaren
 hasieratik dago
 Teknimap-en.*

“Bizi garen ingurunea hobetu nahi dugu industrian hobekuntzak eginez”

- Zer moduz joan zen Teknimapen 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldi berezia?

Oso gustura geratu ginen. Teknimap Eibarren jaio zen, herrian jarraitzen dugu, eta ekitaldi eibartarra egiteko asmoa geneukan. Astroak lerrokatu ziren, izan ere, Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua eta Alex Arriola SPRIko zuzendaria eibartarrak dira, eta Teknimapek lotura estua dauka erakunde horiekin. Bai euren bai Miguel De los Toyos alkatearen aurretiko jarrera oso ona izan zen. Bestetik, Armagintzaren Museoa egiteko aukera edukitzea aparta izan zen.

- Zein behar asetzeko sortu zen Teknimap enpresa?

Teknimap sortu zenean Ingurumenaz berba egitea gauza berria zen eta garrantzia hartuko zuen enpresa-arloa zela ikusi genuen. Hazkundea hondakinak sortzearekin lotzen genuen sasoi hartan, hau da, ingurumenaren hondatzearekin, baina lotura hori bereizteko ekimenak hasi ziren. Enpresek ingurumenarekiko zuten jarrera hobetzeko laguntza eskaintzen hasi zen Teknimap. Orain dela 25 urte genuen jarduera nagusia suak itzaltzea zen. Enpresaren batek deitzen zigun ingurumen ara-

zo bat zeukalako (isuna jarri behar ziotelako, adibidez), eta guk konpondu egiten genuen, eta kitto.

- Jarduera hori aldatu egin da denborak aurrera egin ahala?

Enpresen ingurumen-portaera hobetzea da Teknimapen izateko arrazoia eta bizi garen ingurunea hobetu nahi dugu industrian hobekuntzak eginez. Suak itzaltzeko lanetan hasi ginen, baina urteen poderioz jardun hori atseginagoa egin da enpresek euren aktibitatean ingurumena kontuan hartzen dutelako eta denboran zehar garatu den harremana dugulako. Enpresa horien aliatuak gara euren egunerokoan.

- Gora joan da ingurumena zaintzeko neurriak hartu dituzten enpresen kopurua?

Euskadiko enpresek argi daukate euren izateko arrazoia piezak ekoiztea dela. Hala ere, ingurumena zaintzeko neurriak hartu dituzte eta horrek kosteak handitzen ditu, baina neurri horiek euren ekoizpen-prozesuan hobekuntzak ekartzen dituztela konturatu dira. Hondakinak sortzeak euren ekoizpen-prozesuaren eraginkortasun eza islatzen du eta hondakin horiek murriztuz arlo ekonomikoan aurretzen dutela ikusi dute. Ingurumenaren hobekuntza emaitza ekonomikoaren hobekuntzari lotuta dagoela antzeman dute.

- Nolako bilakaera izan du zuen lan-taldeak urte hauetan?

Lau langilek osatzen genuen taldea hasieran eta 12 lagun gaude gaur egun. Langile gehiago ere egon gara, baina krisiaren sasoi oso momentu gogorrek bizi izan genituen. Pertsonak osatzen dugun erakundea garelako argi daukagu eta pertsonak lehenesten ditugu. Gogoetarako momentuak ere izan ditugu, zintzoak izan gara eta 25 urte bete ahal izan ditugu horrela.

- Joera eta behar berriei egokitu behar izan zarete bide honetan?

Aldaketa normatiboek zein bide jarraitzen duten ikusten dugu eta gure zerbitzuak horren arabera garatzen ditugu. Bestetik, gure bezeroek eskatzen digutena ere kontuan hartzen dugu zerbitzuak ekoizteko orduan.

- Zeintzuk dira gaur egun Teknimapek dituen erronka nagusienak?

Bokazio industrialak daukagu eta, horren barruan, enpresei zerbitzu-aukera osoa eskaintzea lortu dugu ikuskaritza-arloan. Bestetik, ekodiseinuaren inguruko ekintzetan gabiltza lanean buru-belarri. Ekodiseinuaren bitartez gizartea eta enpresak ekonomia zirkularraren kontzeptuaren garapenera hurbilduko dira.

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

irazabal

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun


Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

24 orduko
urgentziak

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrila martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrila

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

ERAIKINEN
TRUKAPEN
TEKNIKOA

E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 945 20 18 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com

eta faxa: 943 203 903

ERAKUSKETA

Arikixaneko Zubian

AROTZAK

ulmar

S.L.



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 - ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

www.kolorlan.com 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D



MALVAR

PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396



FERNANDO SOLANA: Azitaingo zubia.

JOSEBA SALBIDE (KOBAN taldeko kidea):

“Zuzenekoak egiten hasi zen taldea gara eta diskoa horren ondorioa da”

Trikitixa, musika elektronikoa eta swinga. Zer irten ahal zen gaizki? Koban taldeak apustu ausarta egin zuen, euskal musikari beste erregistro bat eman zion eta publikoaren erantzun ona jaso du. Talde donostiarra bada ere, Kobanek DNA eibartarra dauka. Izan ere, Jone Laspiur abeslariaren gurasoak eibartarrak dira eta elektronikaz arduratzen den Joseba Salbide eibartarra da. Jone Peru inguruan dabil egun hauetan eta Josebarekin egon gara Koban taldearen ikuspuntu eibartarra ezagutzeko.

- Koban taldearen ikurra den elektroswing doinuaren erruduna omen zara.

(Barreak) Bai, tira. Koban taldea nahiko modu organikoan sortu zen eta une batean erritmoa edo perkusioa jartzeko momentua iritsi zitzaion. Horren inguruan hausnartzen hasi zirenean elektronika sartzea erabaki zuten eta ni sartu nintzen taldean. Elektroa sartu nion taldeari, baina swingaren errudunak besteak izan dira.

- Aurretik beste musika proiektu edo talderen batean ibili zinen?

Etxean musikarekin zerikusia zuten hainbat gauza egin nituen aurretik, baina nire kabuz ikasi ditut elektronikari buruzko gauza guztiak. Pare bat aldiz musika jarri nuen Eibarko hainbat tabernatan, baina besterik ez.

- Koban zure lehen taldea bada, ez zara gauza txikiarekin hasi, ezta?

Ba gure asmoa ez zen zerbait handia egitea. Gaur egungo taldearekin Grosen eskaini genuen lehen kontzertuan beldur pixkatekin

irten ginen, jendeak zer pentsatuko zuen zalantza geneukalako. “Planteatzen gabiltzana zentzugabekeria da”, uste genuen. Guretzat ere nahiko proiektu berezia zela ikusten genuen, ez zen batere proiektu segurua, apustua zen gehiago, baina ondo funtzionatu du.

- Azken aldian talde askok egin duen bezala, zuen diskoa autoekoiztu duzue. Lan samurra izan da?

Diskoa ekoizteko crowdfundinga (diru-bilketa) egin genuen lehenik. Autoekoizpenak alderdi onak ditu, baina zuk lortu behar duzu dirua eta zu arduratu behar zara lana zabalteaz. itsulapikoa.eus plataforman jaso genuen dirua eta proiektuak erantzun ona izan zuen. Gure egitasmoak funtzionatu ahal zuela ikusi genuen gainera.

- Eta funtzionatu duela esan daiteke. Pozik zaudete diskoak izan duen harrerarekin?

Oso pozik! Jendeak gure zuzenekoak entzun izan zituen aurretik eta hortik jaso dugu jendearen babesa.

- Diskoak, gainera, kutsu eibartarra dauka, ezta?

Hori da! Alde batetik, Jone Laspiur eta ni neu gaude taldean. Eta bestetik, Ander Barriuso eibartarra ibili da diskoaren grabaketan teknikari bezala. DNA eibartarra dauka diskoak. Ni Donostian bizi naiz, baina eibartarra naiz. Jone Donostian jaio zen, baina guraso eibartarrak ditu eta bere euskara eibartarra da, peto-petoa. Gero, Barriusorekin oso gustora ibili gara lanean eta oso ondo etorri zaigu bere ezagutza guztia.

- Diskoa atera berri, udako agenda beteta daukazue?

Bai, dezente. Buruz ez dakit zenbat kontzertu eskainiko ditugun, baina uztailetik abuztuaren erdialdera arte baditugu hainbat kontzertu. Bihar Sanferminetan joko dugu, adibidez.

- Seinale ona da hainbeste kontzertu hitzartuta edukitzea?

Oso ondo dago. Gainera, zuzenekoetan oso ondo pasatzen dugu eta taldeak asko irabazten duela esango nuke. Zuzenekoak egiten hasi zen taldea gara eta diskoa horren ondorioa da. Zuzenekoetara begira egin dugu lan eta gure estiloan nabari da.





Eibarko kaliak eta kale-izenak (I)

1607 urterako eibartarrak bazeken preokupaziñua herriko kaliak zuzenak eta itxurazkuak izateko. Urte hartako apirilaren 22ko udal baztarrarian erabagi zeben, esaterako, Joan de Gorostietaren etxia eta berari jarraitzen zetsazanak Ibarrenaren etxiaren parera aurreratzia, "tokixa bazegualako eta kalia desbar-diña eta begiokerra geratzen zalako".

1854. urtian oso egoera kaskarrian zegoazen Elgeta eta Nafar-kale kaliak konpontzia erabagi zan, eta handik hiru urtera Txirio, Elgeta eta Ardantza izan ziran barritu ziranak, Laskurainen planueri jarraituta. 1863. urtarrillian honako kaliak zittuan Eibarrek: Arragueta, Ibarcurutze, Arrabal, Muzetadi, Barrenkale, Arrandi-kale (Pescaderia), Ardantza, Txirixo-kale eta Untzaga. Eta baita bi plaza be: Untzagakua eta Barrixa. Urte horretan 25.000 errial gastatu ziran terreno barrixak erosi eta Arraguetan espaloiak egiteko, eta ondoren egin ziran lanetan 2.000 errial erabili ziran.

Etxietan kanaloiak ipintzeko erabagixa 1869xan hartu zan eta maiatzaren 7ko sesiñuan, Udalak eraikin publikuetan ipintzia erabagitziarekin batera, eraikiñetako jabiak bihurtu zittuan gauza bera egittera "*kalian harrizko zoladura daken bidia ez hondatzeko*" helburuarekin. Urte hartan Nafar-kale deitzen zan kalia handik urtebetera Barren-kale deittuko zan.

Arrabal edo Rabaleko kaliak be izen-aldaketia izan eban. 1888ko abuztuaren 2ko udal sesiñuan askatasunaren boluntarixuak izan ziran hainbat bizilagun eskaeria egin zeben Udaletxian; bertan ekaiñaren 10ian hil zan Maria Angela Agirregomezkortaren testamentuaren barri emoten zeben. Hor aittatutako emakumiak 1.500 pezeta lagatzen zetsen askatasunaren boluntarixueri hórrek azken gerra zibillian egindako zerbitzuak ordaintzeko, modu horretan banketia ospatzeko Maria Angela hil eta hilla betia bete aurretik. Eskaerian azaltzen zebenez, abuztuaren 1ian egin zeben bankete hori eta han bururatu jakuen bera bizi izan zan Arrabal kaliari Maria Angela edo Maria Angelaren Arrabala deitzia. Batzorde batek aztertu zeben hori eskaeraori eta baita onartzia erabagi be, irailaren 13ko sesiñuan: holan, ordura arteko Arrabal kaliak Maria Angela izena hartuko zeben aurrerantzian.

1887ko ekaiñaren 6ko sesiñuan Jose Luis Torres Vildosola ingenieruaren Estaziño kalia eraiki biharreko etxien planua onartu zan eta handik hilla bete batera hasi ziran lanok. Bidia egonkortu zan, estaziñoko nasen lurra barritu eta urak jasotzeko alkantarillia egin zan, Domingo Berezigarrek aurkeztutako 1.426 pezetako aurrekontuari jarraituta.



Elgeta-kale

1892ko urriaren 20xan kalia urbanizatzia erabagi zan, alhondiga barrixaren eta trenbidiaeren arteko zatixan, eta hor sortutakuari Estaziño kalia deitzia. Handik lau urtera, martxuan, 114 bizilagun bildu ziran eta baita kale horretan adokiñak ipintzeko eskatu be; ondoren asfaltatu zeben.

1894ko maiatzaren 2ko sesiñuan espedientia ireki zan harrizko zoladura jartzeko Arragueta kalia. Kortazar arkitektoak hartu zeben lanen zuzendaritza eta uztaillaren 5ian Justo Lopezek irabazi zeben horko subastia. Hurrengo urte hasierarako amaittu zittuen obrak, 8.089 pezeta gastatuta. 1895eko martxuaren 7xan kale barri bat egittia onartu zan trenbideko terrenuen eta Urkusuko pasiuaren artian, Kortazarrek erabagi moduan; baiña beste lehentasunak bazirala-eta, gerorako laga zeben kale horretako inauguraziñua.

1899xan Estaziño kalia Arraguetarekin lotuko zeben kalia zabaltzia pentsatu zeben eta, horretarako, 1.500 metroko terrenua erosteko baimena eskatu jakon probintziako komisiñuari. Kortazarren proiektua

1901eko otsaillian onartu zan, baiña lanak ez ziran hasi 1903ra arte. Prudencio Lopez y Compañiak hartu zeben lanon arduria, baiña handik gixira kontratista eta bihargiñak ihes egin zeben onartutako obligaziñuak bete barik eta Udalak subastia bertan behera laga bihar izan zeben. Hortik ikasitta, kontratista barrixari kostuaren %10 depositatzia eskatu jakon eta Angel Lopezek hartu zeben karga hori. Azkenian 2.841 pezeta gastatu ziran eta 1911n asfaltatu ziran bertako espaloiak. 2 de Mayo eta O'Donnell kaliak be hor bueltan sortu ziran.

1895eko urtarrillaren 17xan herriko fabrikatzaile batek, Paulino Elejaldek, kalietako plakiak eta etxietako numeraziñuak ipintzeko proposame-na egin zeben, burdiñaren gaiñian esmaltatutako plaka batzuk erakutsiz. Udalak kalietako rotulaziñuak onartu zittuan, baiña etxietako numeraziñuak hurrengorako laga zittuan. Handik urte bira, 1897xan, kalietako izenen plakak euskeraz eta gaztelera ipiñi ziran, Diputaziñotik etorritako agindueri jarraituta. Eta 1906ko uztaillaren 11ko plenuan etxietako numeraziñuen plakak ipintzia onartu zeben, jabiaren arduran.

1910ian honako kaliak zittuan Eibarrek: O'Donnell, Isasi, Untzaga, Bilbo-zaharra, 2 de Mayo, Ardantza, Txirixokale, Elgeta-kale, Hospittala, Arrandi-kale (Pescaderia), Barren-kale, Pipar-kale, Maria Angela, Ibarcurutze, Estaziño, Grabadores, Arragueta eta Bidebarrieta. Plazak bi ziran: Alfonso XIII.arena eta Plaza Barrixa. Eta San Andres pasialekua be bazeguan.



Maria Angela

Lau seme-alabaren ama zala siñestuta pasau dau ixa bizitza osua Edith (Edita) Beristainek, haur lapurtuen inguruan kontatzen zittuenak entzuten hasi eta, oin dala sei edo zazpi urte, lehen aldiz zalantzak sortu jakozen arte. Izan be, bere lau seme-alaben aurretik bosgarren bat erdittu eban Eibarren, Pagaegi kalia eguan maternidadian, baiña mutikua jaixo eta miñutu gitxira hil egin zala esan zetsen eta hori pasau zala siñestuta egon da oin dala gitxira arte. Baiña bere buruan susmo eta galderak pizten hasi ziran momentuan, berak erdittu eban lehen seme hori lapurtu egin zetsela, horretan zalantzarik ez daka ointxe. Are gehixago. Berari moduan, Eibarren beste ama batzueri be umiak lapurtu detsela pentsatzen dau eta, horregaittik, euren artian kontaktuan ipintzia gustauko litxakixo, "pasautakuaren inguruan berba egitteko besterik ez bada be, oin arte hori be ez dogulako egin".

Eibarren be lapurtu zittuen ume jaixobarririk

Gaur egunian iñork umia euki eta lapurtuko detsenik pentsatzia be kostau egitten jaku, baiña badira urte batzuk holako kasuen gaiñan gauzak entzuten hasi giñala eta urtetik urtera gero eta luziagua egitten doia ustez lapurtutako haurrak diranak osatzen daberen zerrendia. Bakarrik Gipuzkoan 300dik gora izan leikie, Gipuzkoako SOS Haur Lapurtuak alkartiaren esku daguazten datuen arabera. Umiak lapurtzeko trama horrekin loturia euki daberen ospital eta bestelako zentruak be ez dira gitxi: Arantzazuko Ama Ategorrietan, Nuestra de La Asuncion Tolosan, San Cosme y San Damian Tolosan, Irungo Udal Ospitala, Irun eta Donostiako Gurutze Gorrixa, Virgen del Pilar, Perpetuo Socorro, Poliklinika, Beasaingo San Miguel, Virgen del Coro, San Ignacio, 18 de Julio edo Villa San Jose, Nuestra Señora de las Mercedes, San Juan, Elgoibarko Maternidadia, Ospital Probintziala, Debagoienako Asistentzia Zentrua (Arrasate klinika), San Antonio, San Antonio Abad, San Martin de Aguirre... eta Eibar ez da zerrenda horretatik kanpora gertzen: gure alkarrizketatuak aittatutako Maternidadari, Karmen kalia egon zan Arrillaga klinika be gehittu bihar detsagu.

Maternidadian eta Arrillaga Klinikan

Anadir, adopziño irregularrak kaltetutakuen alkartiak, 1950. eta 1980. urtien artian lapurtutako umien famelixakuak egindako salaketak biltzen hasi eta, 2011. urterako osatu eban erregistraren arabera, Eibarren gitxienez hiru salaketa eguazten, bat Maternidadian eta beste bixak Donostiako San Antonio klinikan. Eta SOS Haur Lapurtuak alkartiak dakan zerrendan, Arrillaga klinikan hiru ume lapurtu zittuela jasota dago: 1957. urtitan jaixotako ume bat,



Bizitzaren zatirik haundixena Eibarren emon dau Editak. Gaur egun Berrizen bizi da, baserrixan.

1958ko otsaillak 12xan jaixotako beste bat eta 1973ko maiatzak 14an jaixotako hirugarren bat. Zerrenda horretan agertzen dan azken lapurretia 1995. urtekua da eta Arantzazu ospitalian izan zan.

Haur Lapurtuen alkartietako ordezkariak diñuenez, "jendiaren testimonixuak entzun eta gero, segiduan ikusten da kasu gehixenetan patriiak errepikatu egitten dirala: orokorrian lehen aldiz umia zeken andreri kentzen zetsen umia, gero ume gehixago izateko aukeria eukiko zebalako. Ama guztieri umia hilda jaixo edo jaixo eta berehala hil zala edo, bestela, malformazi-

ñuak zittuala eta hobe zala ez ikustia esaten zetsen. Eta halanda be umia ikustia eskatzen ebenian, izoztuta egoten zan hildako jaixobarririx erakusten zetsen, urrutitik eta ez ikutzeko aginduta". Famelixakueri, amari min haundixagua ez eragitteko aitzakixarekin, hildako umiaren inguruan berbarik ez egitteko eskatzen zetsen medikuak, umia lurperatiaz eurak arduratuko zirala... holako kontuekin apaintzen zittuen umia lapurtu zetsen ameri kontatzen zetsazen ipoiñak.

Editari kontau zetsen ipoiña be horren parekua da. Medikuek esan zetsan mo-

duan, agindutako egunian eta orduan sartu zan Maternidadian, "25 urterekin eta kunpliduta" eta 1962ko maiatzaren 1ian ekarri eban mundura berarendako eta senarrarendako lehen semia izango zana, 5 kilo pasauta zittuala jaixo zan mutilla. Kontatzen daberen moduan, "orduan sasoiaren paritorixora ezin zan gizonik jua. Umia erdittu arte oso luzia izan zan, baiña behin bultzaka hasitta ordura arteko min guztia jua jatan, dana indarra egittia izan zan. Umia jaixo eta momentuan ikusi neban, baiña ikusi orduko bistatik kendu zesten, beste ezertarako astirik euki barik. Eskuak eta hankak lotuta, mugidu ezinda, zelan ikusi umia? Nun eguan galdetzen neban eta eurak 'hortxe, hortxe' esaten zesten, baiña nik ezin neban ezer ikusi. Zenbat pisatzen eta neurtzen eban esatera bai etorri ziran, baiña ikusi, ezin izan neban ikusi. Eta hasi nintzanean esaten ikustia nahi ne-bala, ikustia, ikustia... orduan etorri jatazen eta, besuan zastadia emonda, lokartu ninduten. Baiña, umia euki eta gero ni ondo baneguan, zertarako pintxau eta lokartu? Ez daka zentzurik. Umia 10 miñutuan bizirik egon eta gero hil egin zala esan zesten, han bertan neguala, bakar-bakarrik. Klaro, hori esaten detsue eta erreakzionau ezinda geratu nintzan. Bueno, erreakzionau bai erreakzionau neban, ikustia nahi ne-bala esaten hasi nintzan eta, baiña orduantxe, galderak egitten hasi nintzanean, orduan etorri ziran ni lokartzera. Nere gizona eta lagun bat gerotxuago etorri ziran, eta nere lagunak bai esaten dau berari ume bat erakutsi zetsela, baiña ez dala ezebezekin gogoratzen. Oin dala zazpi bat urtera arte ez neban iñoiz sospetxarrik euki, gizonarekin be ez neban sekula horren gaiñian berba egin eta holan, gertatuta-



Argazkixan, Pagaegi kalia zeguan Maternidadiarene erakiña. Normalian jaiegunak aprobetxatzen zittuen. Edita atendidu eben neskek sekula gehixago ez zittuan Maternidadian ikusi.

kuaren inguruan ezer komentau barik hil zan bera. Nere ama eta ahiztiari umia erakutsi zetsela be oin dala gitxi jakin dot, ahiztiak esanda. Medikiak neri ezer ez kontatzeko eskatu zetsela eta, oin arte ixillik egon da bera be. Medikiak-eta umia eurak lurperatuko ebela esan zeskuen, geu holako gauzekin ez arduratzeko, eurak egingo ebela dana...".

Kontautako guzurra siñestuta

Editak esaten daberen moduan, bizitza osua emon dau holan, "engañada total". Eta behin sospetxak azaltzen hasten diranian, sentimendu, pena, amorru eta beste guztiak be orduantxe hasten dirala agertzen: "Lehelengotikan hasten zara kriston kulpia sentitzen, zeure burua holan engañatzen laga zendualako". Probatzeko goga zekala eta, aurreko batian terapeuta

batengana jua zala kontau desku: "Pasautakua kontau netsan, hasierian zelako kulpia nekan eta ointxe, barriz, demaseko amorrua dakatela. Berak zeren kulpia nekan galdetu zestanean nik engañatzen laga izatiaren kulpia nekala erantzun netsan. Orduan berak bixon arteko tokixak aldatzeko esan zestan, ni bere tokixan ipintzeko eta galdetu zestan: "Benetan uste dozu orduan momentuan zu engañatzen ari zirala burutik pasatzerik bazekazula, ala?". Esan zestan berak ezin zetsala lagundu, baiña bai, lagundu egin zestan, errealdadia ikusten lagundu zestan eta. Hori dala-ko errealdadia: orduan sasoiaren medikua-rengan erabateko konfiantza izaten genduan eta harek esandakua siñestu, besterik ez genduan egitten".

Errepikatzen diran istorioak

Salaketia egittera animau diranak kontatzen dittuen istorio guztiak benetan anker eta gogorak dira: "Oin dala gitxi, lapurtutako ume batek kontatzen zeban zelan ama berari ezebezek kontau barik hil zan, baiña gero berak jakin eban ama antzua zala, ezin ebala umerik euki. Orduan topau zittuan urtero moja batek idazten zittuan felizitaziñuak eta gurasuak urtero dirua emotera zelan juaten ziran... lapurtutako beste ume baten aittari kanposantura eruateko kaja emon zetsen, ez zabaltzeko esanda, eta ointxe, zabaldu dabenean, kaja horretan harrixak eta kotoia, besterik ez dabe topau. Gaiñera, berak enterradioriarekin zekan amistadiari esker lortu eban kaja lokalizau eta zabaltzia, bestela eziñezkua da, ez dabelako horretarako permisorik emoten. Geu be egon giñan udaletxian galdetzen



Administraziñuak trabak baiño ez dittuala ipintzen salatzen dabe famelifax.

eta esan zeskuen jaixobarrittan hildako umiak "linbo" dalakuan, kanposantu barruan dagan terrenotxo batian daguezela lurperatuta. Edozelan be holako kasuetan legiak ez zaittu bape babesten, danerako trabak besterik ez dagoz, hori da dakagun justizia!". Holan hiltzen ziran jaixobarririk ez ziran erregistratzen, baiña "legajo" izeneko agiri batian bai jasotzen ziran datuak. Edozelan be, Maternidadiaren kasuan, agiri guztiak 80ko hamarkadako ufaletan galdu zirala diñue.

Editaren berbetan, "papelik eta holakorik ez dakagu, bakarrik medikuak neri esandakua, berandu jua nintzala eta umia jaixo eta berehala hil zala. Baiña ni berak agindutakuan jua nintzan. Gaiñera, partua probokauta izatiaren kontu hori eurak asmatu eben. Nik haurdunaldixak txarrak euki dittut, baiña partuak onak, danekin akordatzen naiz eta orduan be nik parto normal-normala euki neban, ostian lau ume gehixago euki nittuan eta badakit holan izan zala, denpora osuan kontziente egon nintzan eta".

Kendu zetsen ume hori topatzia ixa ixa eziñezkua dala badaki, "baiña etxetik urten eta daneri begiratzen zoiaz, ze nere seme-alaba guztiak euren artian traza haundixa dake eta seguru nago honek be bestien trazia eukiko dabela. Behin hasten zaranian zer pasau ahal izan dan sospetxak eukitzen, hortik aurrera ezin dozu burutik kendu, ze beste seme-alaba batzuk eukitta be, beste falta hori sentitzen dozu. Ume horrek ez dau amaren titirik hartu eta, gaiñera, gezurra esan detse".



Edozelan be, topatzeko esperantza txiki- txikixa izanda be, hortxe dago: "Ez dakit zergaittik, baiña lehelengotik euki neban sensaziñua igual Galizian egon ahal zala eta hiru urtian Galiziara jua gara, goititik behera ziherkatu dogu batetik bestera, ia topatzen genduan. Aurten beste toki batera juango gara".

Alkartu eta berba egitteko premiñia

Horrekin batera, badaka beste kezka haundi bat: "Konturatzen zarie dana ixillik daguala? Ez daguala honen gaiñian berba egitteko gogorik, ez dala ikusten interesik? Lobatonek jendia billatzeko programia euki eban moduan, zergaittik ez dira egitten holako kasuen inguruko programak?".

Eibarren bertan eta inguruko herrixetan be beran moduko beste ama batzuk egongo dirala pentsatzen dau eta euren artian berba egitteko "besterik ez bada be", umia lapurtu zetsen beste batzurekin kontaktuan ipintzia gustauko litxakixo, "ze oiñ arte hori be, barbarik be ez dogu egin iñork siñestuko ez ebala pentsatzen gendualako". Asmo horrekin billeria antolatuta dabe datorren asterako, hillaren 19rako, 19:00etan Portalean.

Gaixaren inguruko informaziño gehixago:

<http://sosbebesrobados.webnode.es>
SOS Haur Lapurtuak Gipuzkoa 667536674
SOS Haur Lapurtuak Euskadi 943577182

ARRATE BEZPERAKO **bertso-afaria**

IRAILAK 7 OSTIRALA 21:00
KANTABRIA JATETXEAN



ANDONI
Egaña



AITOR
Sarriegi



MAITALEN
Lujanbio



SEBASTIAN
Lizaso

Gai-jartzailea: *Jon Mikel Mujika*

SARRERAK SALGAI Kultura, Sagarbitza eta Kantabrian



Berlingo LISPA eskolan antzerki-interpretazioko ikasketak egiteko beka eskuratu zuen iaz Irene Hernando eibartar gazteak eta ikasturte osoa egon da Alemanian “antzerki fisikoa” lantzen mundu osoko ikaskide eta irakasleekin. 25 urte ditu eta txikitatik izan du harreman zuzena arte eszenikoekin: etxean, aitarekin eta amarekin hasi zuen ibilbidea eta arlo desberdinetan aritu da: musika, dantza, kantua, antzerkia... Antzerkigintza ikasketak Magisteritzarekin uztartu ditu eta bere ametsetak bat Euskal Herrian haur eta gazteei antzerkia irakastea da.

IRENE HERNANDO

(antzezlea eta antzerki sortzailea):

“Berlinen antzerkia egiteko eta sortzeko modu berriak ikasi ditut”



- Alemaniatik etorri berria zara. LISPA antzerki eskolan ikasten eman duzu azken urtea. Nolako ibilbidea egin duzu horra iritsi arte?

Jaio nintzenetik beti egon naiz oso lotuta arte eszenikoekin. Irakasleak izateaz gain, aitzak eta amak txotxongiloak eta antzerkia egiten zuten, Kixka taldea osatzen zuten. Etxean ikusten duzuna azkenean zuretzako eredu bat da, eta gustatzen bazaizu, askoz hobeto. Beraz, oso txikitatik ezagutu dut antzerkia eta baita musika ere. Pianoa ikasi nuen. Gero dantza ikasi nuen, jazz eta dantza garaikidea Bilbon. Eta Eibarko Koru Gaztean urte mordo ibili naiz.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak gazte talentuentzako beka ateratzen ditu, eta horri esker ikasturte osoa Berlinen igaro duzu. Nola bururatu zitzaizun Alemaniara joatea?

Donostian goizez Magisteritza ikasten nuen bitartean, arratsaldean antzerkia ikasi nuen TAE-n. Baina horrekin ez nuen nahikoa, eta ikastaro asko egin nituen antzerki mota desberdinak ezagutzeko. Bilbon hiruzpalau ikastaro egin nituen, batzuk antzerki fisikoa oinarrituta, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Irakasle batek Berlingo Lispa eskolaz hitz egin zidan. Baina nola joango nintzen Berlinera nire oinarritzko ingelesarekin eta diru barik? Erokeria iruditu zitzaidan hasieran. Orduan Foru Aldundian talentudun gazteentzako beka batzuk zeudela esan zidaten, informatu egin nintzen eta niretzat ezinezkoa zena egi bihurtu da. Iratetik ekainerarte egon naiz, eta oso gustora gainera!

- Zer da antzerki fisikoa?

Ez da erreza azaltzea. Jacques Lecoq frantziarrak sortu zuen metodoa da. Antzerki fisi-

koan sormen eta adierazpen bidea gorputza da. Honek ez du esan nahi gidoiak eta prozesu intelektualak alde batera lagatzen direnik; antzerki mota honetan elementu horiek batipat gorputzaren bitartez adierazten dira. Antzerki fisikoaren barruan maskarak, clowna eta askoz ere gauza gehiago lantzen dira. Oso erakargarria da.

- Berlinera joan zara, hizkuntzaren arazoari aurre egin diozu eta ikasturte osoa eman duzu antzerkia egiteko modu berriak ikasten. Zer eman diezu esperientzia berri horrek?

Egia esan, orain ari naiz ikasi dudana guztia asimilatzen, eta gauza eta ideia guztiak ordenatzen. 12 irakasleren klaseak eta mundu osoko konpainia desberdinetako zuzendarien taillerak izan ditugu. Profesionalki asko ikasi dut eta etorkizunean egin nahi dudana egiteko erraminta pila bat eskuratu ditut,

eta hori zen lehenengo helburua. Baina, horretaz gain, badakit zer egin nahi dudana, nondik hasi, ez naiz egongo nondik deitzen didaten itxaroten... Ez, ni ezin naiz geldirik egon. Sortu eta sortu egin behar dut. Eskola horretan ikusi dudana kalitatea (jendearen kalitatea ere bai), konpromisoa, konstantzia, gogoia, nahia eta beharra izan da. Hori da nik antzerkiarekin sentitzen dudana, eta hori guztia nire ikaskideen baitan ikusteko oso positiboa egin du esperientzia. Eskolako gazteentzako nintzen. Jende asko birziklatzera zihoan. Zure ideiatik abiatuta, zure metodo berria edo antzerkia egiteko modu berria sortzen erakusten dizute. Zu izan behar zara sortzaile, produktore, antzezle... dena! Gozada bat! Eta hau da modurik hoberena egiten ari zaren horretan sinesteko. Zure barrutik ateratako proiektua delako.

- Antzerkia egiteko modu berriak, jatorri desberdinetako irakasle eta antzerki-zuzendariak, mundu osotik heldutako ikasleak...

Berlingo Lispa antzerki eskolak mundu osoko ikasleak hartzen ditu urtero. Estatu Batuetakoak, Hego Amerikakoak, europarrak... Aniztasun handia zegoen eta horri esker aukeratu ahal zenuen norekin egin gauzak. Nik hizkuntzarekin beldur handia nuen eta hasieran pentsatzen nuen ahal nuen guztia ikasi ondoren Euskal Herrira bueltatu eta hemen egingo nuela ikasitako guztia. Baina, azkenean, 4 ikaskideren artean konpainia bat sortu dugu, konpainia internazional bat. Astero lan bat aurkeztu behar genuen, Gai bat ematen ziguten eta 20 minutuko antzezlan bat sortu behar genuen gai horren inguruan. Horietako lan bat egiteko laurak elkartu ginen (Estatu Batuetako bi, Belgikako bat eta ni). Bage-nekien elkarrekin nahi genuela egon, ikusten genuelako gauza komunak genituela: erritmo azkarra daukagu, ironikoak gara, umore beltza egiten dugu, sarkasmoa eta kritika erabiltzen dugu... Gure proiektua eskolan aurkeztu genuenean horrekin jarraitu behar genuela esan ziguten, talde eta gai horrekin. Horregatik, datorren udarako Europako herri eta hiri desberdinetako antzerki jaialdietan izena ematen ari gara orain.

- Eta Euskal Herrian zer?

Nik Euskal Herrian lan egin nahi dut, euskaraz. Nire helburua antzerkia egitea eta sortzea da, oinarri feminista batetik, irla,

kritika eta sarkasmoa erabiliz. Baina, horrez gain, irakastea maite dut eta antzerkia erakutsi nahi dut. Hezkuntza sisteman antzerkiak (eta arteak orokorrean) lekua izan beharko lukeela uste dut. Ez dut ulertzen futboleko hainbeste haur jardutea eta antzerkigintzan edo arte eszenikoetan hain gutxi. Arzoa da haurrei ez zaiela aukera eskaintzen eta ez zaiela azaltzen zer den antzerkia, eta nolako onurak dakartzan. Eta aukera daukatenean, ez da kalitatezko antzerkia ematen.

- Gainera zuk haurrekin lan egiteko ikasi zenuen.

Bai. Magisteritza ikasi nuen eta haur eta gazte literaturan espezializatu nintzen. Unibertsitatetik irten eta korrika joaten nintzen antzerkia ikastera. Nekatuta nengoen, baina oso gustora, eta gauzak balantzan jartzen banituen, aurrera jarraitzek merezi zuen. Ezin naiz geldirik egon. Orain, Berlinen ikasturtea amaitu dudanean, "zer egin dezaket udan hobetzeko?" galdetu diet irakasleei, eta "ezer, egon geldi, badakigu zaila dela, baina egon geldi" esan didate. Baina ezin dut. Lana egin behar da, eta kalitatezko gauzak egiteko ezin zara geldirik egon. Oraindik ezin dut aurreratu, baina zenbait proiektu garatzen dihardut Berlinen gero hona ekartzeko.

- Azken finean, beka hauen helburua da zu bezalako jende ekintzaile eta talentuduna formatzea gero ikasitakoa hemen garatzeko.

Bai, horrela da. Baina Euskal Herrian beharrezkoa da horre-



Abeslari, dantzari eta antzezle moduan prestakuntza handia du Irenek.

lako formakuntza izatea. Niri asko gustatzen zait kultura desberdinetako jendearrekin nahastea, pila bat ikasi dut eta zorte apurtxo batekin irailan berriro noa, bidaiaren luzapena eskatu baitut, baina zergatik joan behar naiz Berlineraino? Hemen eskola bat sortzea gustatuko litzaidake.

- Gauza asko egin dituzu. Zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Eibarko Koru Gaztean pila bat ikasi nuen. Kriston giroa zegoen taldean. Elena Martin Koruko zuzendaria zoragarria da eta ETB-ko "Oh Happy Day"-ko etapa oso intensoa izan zen. Gustora egotean ez zinen konturatzen zenbat ikasten ari zinen. Azkenean astero plato batera joan behar izateak, abesti batekin, koreografia berri batekin...Horrekin tabla asko lortu genituen denok. Eta gero, beste modu batean, Ber-

“Badakit zer egin nahi dudan, nondik hasi, ez naiz itxaroten egongo nondik deitzen didaten”

garan egin genuen "Peter Pan" musikala azpimarratuko nuke. Koreografo eta dantzari bezala jardun nuen, eta hor ere oso gustora egon nintzen. Antzerki-irakasle moduan ere ibili naiz ikastetxeetan. Praktika txikietan asko ikasi dut. Azken finean poliki poliki joan naiz, ez dakit zein den azken puntua (espero dut inoiz ez iristea), baina ikusten dut gutxinaka nora nahi dudan iritsi badakidala eta horregatik pozik nago, helburuak ditudalako.

MARIA GISASOLA UGARTEBURU 5. URTEURRENA: 2013-VII-11



Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

Zure familia



Udan Eibar eta inguruetan geratzea aukera ona da. Aukera ugari dago eta orain ez ditugu gure altxorrik deskubrituko, baina hemendik kanpo mundu bat dago. Hondartza edo mendia, lasaitasuna edo abentura, museoak edo festa. Aukera, zurea da. Denbora eta gogoia badaukazu, uda ahaztezina pasa dezakezu. Bete ezazu motxila ilusioz eta gozatu!

Bidaia bat egiteko orduan hainbat gauza hartu behar dira kontuan. Nora joan nahi dut? Nola joango naiz? Non egingo dut lo? Eta ez beti ordena horretan. Zure esku geratuko da zer lehenetsi, guk aholku batzuk besterik ez dizkizugu emango.

Zure nahia hemendik urruti joatea bada, **hegazkina** hartzea da aukera onena. Azken urteotan asko ugari da hegaldi merkeen eskaintza eta skyscanner.com webgune famatua da zuri ondoen egokitzen zaizun hegaldia aurkitzeko plataforma onena. Honek ez baditu zure nahiak betetzen, kayak.es edo momondo.es webguneak ere gomen-dagarriak dira. Bestetik, badaude aparteko eskaintzen berri ematen dituzten hainbat webgune ere (guialowcost.es, happylowcost.com eta secretflying.com adibidez). Hori bai, adi ibili behar zara, eskaintza asko berehala agortzen direlako.

Hegaldiak hartzeko orduan kontuan izan hegaldi zuzenak diren ala ez (eskalak egiten dituztenak merkeagoak izan ohi dira), zuen motxila edo maleta fakturatu dezakezuen eta txartelak denborarekin hartzen saiatu. Gogoratu, gainera, Loiuko aireportuaz gain Gasteiz eta Biarritzekoak ere hurbil ditugula.

Bidea maite dutenentzat **trena** da aukera erromantikoena. Europako trenbide sareak edonora heltzen dira eta aski ezaguna da **Interrail** txartela, hainbat belaunalditako gazteentzat atzerrian bidaiatzen egindako lehen abentura handia. European zehar trenean ibiltzeko txartela da Interrail eta hainbat auke-



ra ditu: 15 egunekoa, 22 egunekoa, hilabeteakoa, malgua... Aurten Europar Batasunak Interrailko 1.364 banatu ditu 18 urte bete zituztenen artean eta 11.680 gaztek egin dute eskaera. Izan ere, trenean bidaiatzeko xarma inoiz ez da galtzen.

Errepidea hartuz gero, aukera ezberdinak daude. **Autobusean** bidaiatu nahi duenak goeuro.es edota checkmybus.es webguneetan aurki ditzake aukera onenak. **Autobusean** bidaiatuz gero, jende gehiagorekin bidaiatzea komenigarria da gastuak guztien artean banatzeko, eta autorik eduki ezean, blablacar.es bezalako webguneek autoa

partekatzeko aukera ematen dute (eta autoa duenak, bidaideak bilatu ditzake).

Eta **bizikletan** bidaiatu nahi baduzu? Ba zakutoak ondo lotu eta bidea egin. Askatasun sententzia sentitzeko modu aparta da bizikletan bidaiatzea... eta oso merkea da! Bizikletan ibiltzeko errepide bikainak aurkitu daitezke Europako herrialde askotan eta horren lekuko dira viajesenbici.es, viajarenbici.es eta rodadas.net webguneak. Hainbat ibilbide eta aholku aurkituko dituzue orrialde horietan.

Non egingo dugu lo?

Eguraldia lagun izan ohi dugu udan eta camping egiteko sasoi aproposa izaten da. Euskadiko Camping Federazioaren webgunean (campingseuskadi.com) gure inguruko camping berri izango duzu, baina vayacamping.net webgunea ere lagungarria izango zaizue.

Jende berria ezagutu eta gau batzuk ezer ordaindu gabe pasa nahi badituzu, couchsurfing.com da aukera. Izan ere, jendeak bere etxeko sofa edo ohe bat bisitarien esku uzten du plataforma honen bitartez.

Bidaiatzeko aukerak mila dira eta norberak egingo du bere bidea, ez dagoelako bidaiatzeko modu jakin bat. Beraz, probatu nahi duzun bidaia uda honetan.



MARITXU AGIRREBEÑA ARRIOLA

5. urteurrena: 2013-VII-7



*Zuk emandako maitasunak
gurekin jarraitzen du*

Maite zaitugu, Amama





Paula Gabilondo hilaren azken asteburuan izango da Madrilen.

Eibar Igerixan-eko lau igerilari Espainiako txapelketetan

Hilabete honetan jokatu diren udako Espainiako txapelketako hiru mailetan izango du ordezkariarik Eibar Igerixan Kirol Klubak. Ikasturte guztian egindako lanaren emaitza izan da lau ordezkariak irabazitako txartel hori, euren markak hobetzeaz gain txapelketetan parte hartzeko gutxiengo hori ere lortzeraino. Herenegun hasi zen junior mailako XI. txapelketa Sevillako Mairena de Aljarafe eta domekan amaituko da, Maite Barruetabeña eta Jon Osaren parte-hartzearekin. Datorren asteburuan, 19tik 22ra, alebin mailako VI.a jokatu da Sabadellen, Carles Ibars-Can Longen, eta Miren Galdos izango da bertan. Azkenik, infantil mailako XL. Espainiako Txapelketa Madrillgo munduko igeriketa zentroan jokatu da hilaren 26tik 29ra eta han izango da Paula Gabilondo. Animo, laukote, eta zorte on!

Beteranoen Eibar FT nagusi Suitzan

Eibar FTko beteteranoen taldeak NBE-k (Nazio Batuen Erakunde) arrazismo eta xenofobiaren aurka antolatutako nazioarteko torneo irabazi du. Suitzako UEFAko egoitzan jokatuako torneoan eibartarrak torneoaren bigarren edizioarekin egin ziren lehen fasean UEFAko konbinatuarekin bana berdindu, Nazio Batuen taldeari 1-0 irabazi eta State Nyonais taldeari 5-0koa sartu ondoren. Finalean UEFAko konbinatua izan zuten aurrez-aurre berriro, baina oraingoan erraz nagusitu ziren (3-0). Artxe, Bixente eta enparauek ondo erakutsi zuten oraindik orain badutela nahiko joko euren oinetan.

Mikel Zabala Irungo Bidasoara hiru urterako

Mikel Zabala Eibar Eskubaloiko jokalaria Irungo Bidasoa taldean jokatu ditu hurrengo hiru denboraldiak. 20 urteko hegaleko jokalaria agur esan dio Eibar Eskubaloian egindako ibilbideari eta Asobal Ligan egingo du debuta Irungo talde historikoarekin. Zabalak ezker hegalean jokatzen du eta Espainiako selekzioarekin dago orain Celjen (Eslovenia) uztailearen 19tik 29ra jokatu den Europako Junior Txapelketa prestatzen. Aurretik ere hainbat partidu jokatu ditu Espainiako selekzioarekin eta iaz munduko azpitxapeladun izan zen Georgian jubenil mailako taldearekin; horrez gain, Euskadiko selekzio absolutuarekin ere jokatu izan du.



Espainiako selekzioaren gazteen mailako talde guztietan jokatu du Zabalak.

Ander Romaratek foball inklusiboaren ardura hartu du Eibar FT-n

Eibarko igerilariak Eibar FT-k Kirolgirekin elkarlanean abiatutako proiektua kudeatuko du, "zerotik hasitako eredu berriari jarraituta osatuko diren bi taldeak klubaren egiturako parte izan daitezzen". Foball inklusiboko sail horretan buru paralisia dutenen taldea egiteko asmoa dute (Nazional mailan jokatze) eta adimen ezgaitasuna dutenen beste bat (LaLiga Genuinen, LaLigak sortutako ekimen integratzailean jokatze). Epe ertain-luzerako helburutzat jo du Romaratek asmoa eta dagoeneko hasi dira lehen kontaktuak egiten jokalaria hartzeko. Adimen ezgaitasuna dutenen taldea osatzeko 16 jokalaririk beharko dira gutxienez eta buru paralisia dutenena osatzeko, bestalde, 11. Izen-ematea zabalik dago eta interesatuek futbolinclusivo@sdeibar helbidera jo dezakete edo 688 651 748 telefono zenbakira deitu.



Triatloia familian Medina de Riosecon

Proba berezia izan zen aurreko domekan Valladolideko herri horretan jokatuakoa Deltecoko familiarentzat, triatloiariek euren familien laguntasuna izan zutelako irteera horretan. Roberto Gartzia izan zen ordezkari onena proban, 30. postuan; atzetik izan zituen Moises Altuna (57), Roberto Agirre (68), Jon Etxabe (76), Jesus Sanchez (77), Adrian Galan (79) eta Txema Artetxe (84). Cristina Ruiz izan zen Deltecoko emakumezko bakarra eta 9. postuan amaitu zuen, hirugarrena izanik bere mailan. Bezperan, zapa-



tuan, Sallent de Gallego triatloian parte hartzeko asmoz joan baziren ere, eguraldi kaskarrak bertan behera laga zuen proba hori. Eta domekan hiruk amaitu zuten Gasteizko Half Iron Man-a: Enrique Guruzeta (118. postuan), Gonzalo Saez (125) eta Iñigo Villaba (531).

KAPITAINAREN AGURRA

21 urte egin ditu Ermuan bizi den bergararrak foballean. Eta, berriro jaiota ere, kirol berbera aukeratuko luke, hor egindako ibilbideak "merezi izan duelako, ikuspuntu guztietatik". 7 urterekin hasi zen, mutilekin ausart, eta 29rekin laga du, lanarekin partekatze gero eta arazo gehiago zuelako. Gainera, estatuko maila gorenera igotzeko borrokan sartuta dagoen talde bateko kapitaina izan da azken lau urteotan. Foballean aurkitu duen guztiari eskertuta badago ere, une honetan ez du entrenatzaile izateko asmorik. Martitzenean berarekin izan ginenean, bustitzeko eskatuta, Frantzia ikusten zuen berak Mundialean garaile. Ordu batzuk geroago Griezmann eta taldekideek arrazoa ematen hasi zitzaizkion, finalerako sailkatuta.



AINHOA ALONSO: "Foballak eman didana zaila izango zen beste inon aurkitzea"

- 21 urte foballean. Eta erdia Eibarren, ezta?

Bai. 15 urterekin etorri nintzen Eibarrera. Taldean bost denboraldi egin nituen eta, tarte bat kanpoan eman ondoren, berriro bueltatu eta beste bost eman ditut foballa laga arte. Erdiko bitarte horretan Soraluzen jokatu nuen eta gero Arrasaten lau denboralditan, 2. mailara igotzea lortzeko

- Zein postutan jokatu duzu? Golak ere egin dituzulako.

Aurrealdean, jakina, eta he-galeko eskuin zein ezker aldean, batez ere eskuinetik. Golak sartzen moldatu naiz eta iaz, esaterako, pitxitxia izan nintzen.

- Taldeko kapitaina izateak, erantzukizun hori hartzeak, zer dakar berarekin?

Ez da besokoa soinean eramatea bakarrik, baizik eta talde-dinamikan sartu eta hori bultzatzea, talde egitea, indarrak bildu eta aurrera egiteko. Helburuak lortze aldera, taldekideok norabide berean jarduteko, klubaren baloreekin eta helburuekin aurrera eginez, eta entrenatzaileen proposamenen alde eginez.

- Eibarrek kalitate jauzia egin du azken urteotan. Badirudi epe erdian goi mailara igotzeko asmoa ere baduela.

Kristona izan da aurrerapena. Eta igotzearena... ahal den eta azkarren nahi da, berehala ahal

bada. Baliabide gehiago ditugu eta azken aldian guztiz aldatu dira helburuak, mutilen foball-eskolaren egitura nesken arloan ere ezartzeraino. Lurralde Mailan jokatzeko duen bigarren taldea ere igotzetik gertu izan da azken denboraldian eta horren bila ere badihardu taldeak. Lan asko dihardute egiten kadeteetan neskak hartzeko. Lehen azkenak ginen eta orain medikua, fisioa, psikologoa eta materiala ez zaizkigu falta.

- Zer eman dizu zuri foballak?

Aberastu egin nau pertsona bezala, baloreak erakutsi dizkit lanean jarduterakoan, jende asko ezagutzeko aukera eskaini dit eta, horrez gain, askotan taldekideekin familiakoekin edo lagunekin baino gehiago egon izan naiz. Oso baliagarria izan

zait garapen pertsonalerako, lehiaketetan parte hartzeak eskaintzen duen ezagutzen transbertsalitateko aukerarekin.

- Nondik enfokatuko duzu hemendik aurrerako? Foballarekin jarraitzeko asmorik?

Orain arte hor izan naiz, ahal nuen moduan kirola eta lana partekatzen. Graduko Ingeniaritza Teknikoa eta Master Industriala ikasi nuen eta Fagor Ederlanen egiten dut beharra, Aretxabaletan. Oso ondo portatu dira nik foballean jarraitu ahal izateko: ordutegi malgua eskaini izan didate. Behar ere bai, astero hiru entrenamendu saio eta partidua izan ditugulako. Hemendik aurrera lau entrenamendu izango dira... Orain urtebete lasai hartzeko asmoa dut. Gero ez dut baztertzen foballean jarraitzea, baina bulegotik nahiago zelaitik baino. Nire burua ez dut entrenatzaile ikusten, gehiago delegatu edo antzerako postu batean.

- Gizonezkoen foballa jarraitzen duzu? Idolorik bai, emakumezkoen edo gizonezkoen artean?



Eibarko aurrelaria Athletic-en aurkako partidu batean.



Golarekin zer sentitzen den ondo baino hobeto daki Ainhoa Alonsok.

Bai, jarraitzen dut, asteburuetan behintzat. Eta gustokiak ditut Paris Saint Germainen jokatzeko duen Irene Paredes eta Messi bera. Paredes ezagutzeko aukera izan nuen Realean jokatzeko zuenean.

“Agurrean bikain portatu da jende guztia nirekin”

- Emakumezkoen foballak ere jautzia egin du telebistara.

Liga Iberdrola sortu zenetik gero eta aldaketa gehiago eman dira. Badago asmoa 1. Maila B ere sortzeko, bigarren maila hori bultzatzeko asmoz. Jendeak gero eta gehiago ezagutzen du eta kanpoko hainbat fitxaketa ere egin dira.

- Zeintzuk izan dira zure une berezietan foballean?

Zorteko izan naizela esango nuke. Ibilbide guztian lesiorik inoiz ez izateaz aparte, maila igoerak disfrutatu ditut, Ipuruan

jokatu dut eta gola sartu gainera, baita Barçaren aurka ere...

- Eta agurra iristerakoan...

Eskerrak ematea besterik ez zait geratzen: Eibarri eta jardun izan dudako beste talde guztiei, tekniko, taldekide, fisio eta mediku guztiei. Familia ere ezin dut ahaztu; asko lagundu izan dit. Agurra, bestalde, une berezietan lagunduta etorri zait: urrezko intsignia eman zidaten, nire irudiekin egindako bideo-laburpena, taldekideek txapela oparitu zidaten, komunikabideen aldetik ere erantzun ona jaso dut... Ez nuen halakorik espero, benetan. Baina ikusi ahal izan dut jendeak jarraitu izan nauela. Eta Eibar FT oso ondo portatu da, bertako familiako kide bihurtzeraino.

Eta azken Bilbao International Football Summit-ean bizi izandako esperientzia hasten zaigu kontatzen, Julen Lopetegui, Roberto Martinez Belgikako entrenatzailea eta Xabi Alonsorekin egoteko izan zuen aukera.

Iradi
LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia
 ● tartak
 ● enkarguak
 etxera
 Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73



OSKAR ARANTZABAL
(ekonomialaria)

- Feminismoa eta kooperatibismoa landu dituzue batez ere. Zein da aldea Katalunia eta Euskal Herriaren artean?

Kooperatibismoa hemen berez aspaldiko kontua da. Katalunian ere badago, baina jatorria oso bestelakoa izan zen. Euren anarkismotik-eta gehiago daukate. Baina ekonomia sozialak izan dezakeen pisua garrantzia hartzen ari da. Feminismotik uste dut antzerako urratsak ematen ari garela; hemen ere badira horren inguruan adituak. Aurten, esaterako, martxoaren 8ko mugimendua eta munduan zehar ematen ari direnak... Olatu baten gainean igotzen ari gara.

- Katalunia erreferente moduan hartu behar dugu ala guk geure bidea egin behar dugu?

Hori betiko zalantza da. Nik uste herri bakoitza desberdina dela eta bakoitzak bilatu beharko lukeela bere bidea. Egia dena da batera ematen ari direla hiru

“Kataluniarrak eta gu bestelako Europa baten bila gabiltza”

Eibarko ekomialariak UEUren 46. Udako Ikastaroen barruan “Kataluniako Errepublika, zergatik eta zertarako” izeneko ikastaroan hartu zuen parte uztailaren 5ean. Orain dela hiru urte Eskozia eta Kataluniako prozesuak ikuspegi sozioekonomikotik aztertu ondoren, oraingoan diziplina artekoa egitea nahi izan dute eta hainbat ildotik begiratutako ikuspegi zabala eskaini dute.

prozesuak: Eskozia, Katalunia eta Euskal Herrikoa. Eta orain dela ez asko, gainera, Bilbon egin zituzten topaketa batzuetan aipatu zen sinkronizazioaren kontzeptua. Hau da: pentsa Eskozia, Katalunia eta Euskal Herriko biztanleria batuz gero, 15 milioi europar garela; eta 15 milioi europar ezin egonean baldin bagaude, eta gauzak beste modu batera egin nahi baditugu, ahots indartsua izan dezakegula. Bakoitza bere aldetik joanda indarrak sakabanatzen ditugu; eta herri txikia gara. Esate baterako, orain migrazioaren auzia sortzen ari dela, hiru herri hauek migrazioaileak ekartzearen aldekoak gara. Eta beste herrialde batzuk, Ingalaterra-eta, ateak ixten ari dira. Bestelako Europa baten bila gabiltza.

- Eta Europara begira, zer da aurreikusten dena?

Belaunaldi aldaketa bat ematen ari dela uste dut. Sarritan aipatzen zaigu lege-

ak-eta aldaezinak direla. Gu gazteak ginenean ere intsumisioaren fenomenoak ere hor zegoen. Baikorra naiz alde horretatik, ikusten dudalako ez direla kasualitatea gauza guzti horiek. Gero egia da interes asko daudela Europan, enpresa handiak eta multinazionalak, eta oligopolioak eta nahi duzun guztia; baina oinarrian printzipioak eta baloreak daude. Orduan, uste dut balore demokratikoei Europaren baitan askoz ere pisu gehiago izan beharko luketela. Lehenago edo geroago horrek bere bidea hartu beharko du; eta modu -nik uste baketsuan aurrera egin dezakeen proiektu bat izango dela. Eta atzetik ere beste batzuk daudela. Belgikan bertan ere flandiarrek eta waloiak daude. Eta Korsikan ere hizkuntzaren auzia daukate Frantziarekin. Beraz, europar asko gaude egoera oso zailean eta gauzak beste modu batera egiteko asmotan.


Elkartasun eta garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntza-eskaerak

Eibarko Udalak ematen dituen “Elkartasun beka” programarako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago eta eskaerak abuztuaren 6ra arte onartuko dituzte. Eskatzaileak bete beharreko baldintzak hauek dira, besteak beste: eskaerak aurkezteko epea amaitzerakoan 20tik 40 urte bitartera izatea; deialdiaren laburpena Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu aurretik Eibarko udal erroldan gutxienez 3 urte izenemanda egotea; eta aurkezten den proiekturako beste erakunde edo elkarteren bat honen antzeko bekarik jasotakoa edo onuraduna ez izatea. Bestalde, eskaera egiten duen bakoitzari emango zaion dirulaguntzak ezin izango du gainditu 1.500 euroko zenbatekoa.

Bestalde, “Garapenerako lankidetzaren aldeko sentsibilizazio-proiektuak aurrera

eramateko dirulaguntzak” eskatzeko epea ere abuztuaren 6ra arte zabalik egongo da. Kasu honetan onuradunak irabazi asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakunde edo Instituzioak izango dira eta proiektu bakoitzeko gehienez 6.000 euro emango dituzte. Eskaera egiten dutenek erakundeak garapenerako nazioarteko lankidetzaprogramen arloan jarraitasunez beharrean diharduela egiaztatuta beharko dute eta, gainera, lankidetzako GGKEen Mahaiko partaide izan behar dute, Eibarren izan behar dute egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra, eta sentsibilizazio-jarduerak gure herrian gauzatu behar dituzte.

Dirulaguntza horiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Pegoran galdetu edo, bestela, eibar.eus Udalaren webgunean begiratu daiteke.





Umeendako jarduerak eskainiko dituzte El Corte Ingleseko terrazan

Beste urte batzuetan bezala, aurtengo udan ere dendaren gaineko terrazan umeendako jarduera ugari eskainiko dituzte El Corte Inglesekoek. Antolatu duten egitarauaren barruan egingo diren jarduera guztiak doan izango dira eta uztailako eguen eta barixakueta pilatu dituzte: hilaren 19an eta 26an, 17:30etik 19:30era, jolas erraldoiak (minigolfa, "Connecta 4"...) eta "Mini-balance bikes" erako bizikletak eskainiko dituzte. Eta gaur eta hurrengo barixakuan, berri, umeendako puzgarriak egongo dira, 17:30etik 19:30era.



"Agur Etxebeste!" pelikularako figuranteak behar dituzte

Asier Altuna eta Telmo Esnaiek 2005ean zuzendu zuten "Aupa Etxebeste!" film arrakastatsua bigarren zatia, "Agur Etxebeste!" izenburukoa, uda honetan, abuztuaren 27tik aurrera grabatuko dute Bergaran. Filmatze lanetan zazpi aste emango dituzte eta figurante modura lan egiteko prest dagoen jende bila dabilta Binahi casting enpresakoak. Ordaindutako lana izango da eta interesatuei 18 urte edo gehiago izatea eta gutxienez filmazio egunetako batean erabat libre egotea eskatzen diete (domeketan ez dute lanik egingo). Interesa izanez gero castingbinahi@gmail.com helbidera idatzi behar da, izen-abizenak, adina, telefono zenbakia eta non bizi zaren azalduta, datuekin batera gaur egungo argazkiren bat bidalita.

I. Ojanguren XXXI. Argazki Lehiaketa

Eibarko Udalak, Klub Deportiboaren laguntzaz, 2018ko Indalecio Ojanguren XXXI. Argazki Lehiaketarako deia egin du. Lehiaketa jende guztiarentzat zabalik dago eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere 3 argazki aurkeztu ditzake zuri eta beltzean, eta beste horrenbeste koloretan. Lanak aurkezteko epea irailaren 3tik 28ra bitartekoa izango da. Informazio gehiagorako 943 708 435 telefono zenbakira deitu, kultura@eibar.eus helbidera idatzi edo www.eibar.eus helbidean begiratu.

"Asier Errasti" film laburren jaialdia

Uztailaren 25ean zabalduko dute "Asier Errasti" Eibarko 19. film laburren jaialdira lanak aurkezteko epea. Eibarko Udalak eta Plano Corto Elkarteak antolatutako lehiaketan sail bi, fikzioa eta animazioa izango dira. Parte hartzen dutenek aurkeztutako film laburra 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoa izan beharko da eta ez dago mugarik ez aurkeztutako lan-kopuruan ezta jorrotutako gaietan ere. Izen-ematea internet bidez, www.eibar.eus helbidean egin beharko da.



Uztailerako argazki-erakusketak

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik hiru erakusketa izango dira ikusgai uztailan beste horrenbeste tabernatan: Arturo Gonzalez Ascasoren argazkiak, M^a Luisa Rubioren poesiek batera, Klub Deportiboan ikusteko aukera dago. Portalea jatetxean, berri, aurtengo Argazkilaritza Maiatzean agurtzeko egin zen Argazki Rallyra aurkeztutako lanak ipini dituzte ikusgai; eta El Ambigú kafetegian, Jose Luis Irigoienek Saharako kanpamentuetan egindako argazkiak daude.

JERONIMA MANDIOLA BILBAO

1. URTEURRENA: 2017-VII-13

*ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN.*

-ETXEKOAK-



Asteburuan egingo da Lambretta motorren topaketa

Hamabosgarrenez egingo da Lambretta motorren kontzentrazioa asteburu honetan. Martitzena, uztailak 10, San Kristobal gidari eta Lambretta lantegiko enbaxatzailearen eguna izan zen eta, urteroko martxan, egun horren inguruan antolatu dute Lambretta motorren inguruko topaketa. Eta, kontzentrazioarako girotzen joateko, egunotan herriko 27 dendatatako erakusleihoetan Lambretta motorrak erakutsi dituzte.

Asteburu honetan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik etorriko diren motorzaleei, Castellon, Guadalajara, Kantabria eta Burgosetik ailegatuko diren beste batzuk gehituko zaizkie. Bihar goizeko 10:00etan egingo diote Lambretta Eibar XV. Kontzentrazioaren egitarauari, Untzaga plazan topaketan parte hartuko dutenen aurkezpenarekin. Eguerdira arte, era guztietako Lambretta



motorrak ikusteko aukera izango da Untzagan, 12:00etan herriko kaleetan egingo duten kalejira hasi aurretik. Aurten Florencio Irigoien, 1953an Lambretta tailerra Eibaren zabaldu zuena gogoratuko dute eta,

omenaldi gisa, haren alaba Maria Victoria Irigoienek banderakadarekin emango dio hasiera motorren kalejirari. Eibarko kaleetan gora eta behera ibili eta gero, asteburuan jaiak ospatuko dituen San Kristobal auzora igoko dira motorzaleak. Mutrikuko Azkenetxe jatetxean egingo duten bazkaria baino lehen, kostaldera buelta bat eman eta Kalbarixora igotzeko tarte hartuko dute motorzaleek. Arratsaldean, berriz, Trabakuara joango dira, 18:00etan Enrike Mugarzari omenaldia egiteko. Lambrettako behargina izan zen Mugarza eta, besteak beste, Espainiako Itzulian 12 alditan motorrekin lotura lanetan ibili zen. Omenaldia eta gero, Eibarrera bueltan, afari-merienda egingo dute eta, animatzen direnek, San Kristobal auzoko jaietan, gauerditik aurrera Mucedades taldeak emango duen kontzertuan agurtuko dute eguna.

Musika Bandak denboraldia agurtuko du gaur gaueko kontzertuarekin

Eibarko Cielito Musika Bandak gaur gauean, 23:00etan kontzertua emanango du, Toribio Etxebarria kalean (euria

egingo balu, kontzertua arkupeetan izango da). Carlos Sánchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honako pie-


zak interpretatuko dituzte: "Arraunlariak" (pasodoblea, M. Amenabar), "Fiesta Rusa" (kantua, J. Frigola), "La Gran Vía" (aukeraketa, Chueca y Valverde), "The Blues Factory" (Bleker's Blues, J. De Haan) eta "Deep Purple Medley" (aukeraketa, T. Sahashiren moldaketa). Gaurkoa denboraldiko azken kontzertua izango da. Hurrengo udako oporrak eta gero, irailaren 14an izango da eta hori ere gauez eta Toribio Etxebarria kalean egingo dute. Coliseo antzokiko ohiko emanaldiak, berriz, irailaren 30ean hasiko dituzte.



Jose Kareagaren bizitza eta obra interneten eskuragarri ipini dituzte

Aurreko asteko eguenean inauguratu zuten "Jose Kareaga artisaua / artista 1930-2008" erakusketa monografikoa, Zumaiaiko Oxford aretoan eta, horrekin batera, www.josekareaga.eus web orria ipini dute martxan, horrela artista eibartarraren bizitza eta obra mundu osoan ezagutzeko bidea zabaldua. Interneteko webgunean, besteak beste, Jose Kareagaren biografia, egin dituen erakusketak, arlo ezberdinetako artelanen irudiak eta beste hainbat gauza bildu dituzte.

Jose Kareaga Guridi (1930-2008) grabatzaile, pintore, bitxigile eta damaskinatzaile eibartarra hil zela 10 urte betetzen zirela eta, berak egindako artelanen erakusketa zabaldu zuten Portalean iaz, Gabonak aldera, eta oso harrera ona izan zuela ikusita, aurreko as-




tean Zumaian inauguratu zuten erakusketa antolatu dute familia-koek, Zumaiaiko Udalaren laguntzarekin. Uztailaren 22ra arte ikusteko aukera izango da, astegunetan 18:30etik 20:30era eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.



Huntza taldea eta musika afrikarra ERMUAN

Bihar, zapatua (uztailak 14), Huntza taldeak kontzertua eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan, 23:30etik aurrera. Apurtxo bat lehenago, Maliko dantza eta musikarekin gozatzeko aukera egongo da Suufu Afrika taldearen eskutik. Saioa 19:00etan hasiko da Martxoaren 8a plazan.



Bertsoband saioa DEBAN


Bihar, zapatua (uztailak 14), Bertsoband musika eta bertsoa tartekatzen duen saioa izango da kostaldeko herrian, 20:00etan hasita. Debako Bandak Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsolariekin elkarlanean egindako ekitaldia izango da eta Zumardiko kioskoan eskainiko da.



Sigma pilota-torneoa bueltan ELGOIBARREN

Bihar, zapatua (uztailak 14), goizeko 11:00etan hasita Sigma torneoaren edizio berriaren finalak jokatu dira, Lagunak pilota elkarteak antolatuta. Promesen artekoa eta helduen lehen mailakoa izango dira jokatu diren finalak eta, ohiturari jarraituz, ez da hamarrekorik faltako.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Eudosa Rivas Fernandez. 92 urte. 2018-VII-6.
- Adoracion Sevillano Gil. 96 urte. 2018-VII-6.
- Ascension Ruiz Iñiguez. 97 urte. 2018-VII-6.
- Olga Olea Mandiola. 85 urte. 2018-VII-6.
- Candido Maguregi Agirre. 87 urte. 2018-VII-8.

jaiotakoak

- Ainhoa Luciana. 2018-VI-29.
- Roger Leguisamon Mercedes. 2018-VI-29.
- Paule Sanchez Diez. 2018-VII-8.

farmaziak

- Barixakua 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 14
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 15
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 16
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 18
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguena 19
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Barixakua 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI -2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

7	4	3	5	8	6	2	9	1
2	8	6	7	9	1	3	4	5
1	5	9	2	4	3	7	8	6
9	6	7	3	5	2	8	1	4
5	1	8	9	7	4	6	3	2
4	3	2	6	1	8	5	7	9
8	7	4	1	2	5	9	6	3
6	2	1	8	3	9	4	5	7
3	9	5	4	6	7	1	2	8

		9						1
			5		4			
4		6	7					
8		5		3		6		
1								4
		2		9		7		5
					1	3		9
			6		5			
	5					2		

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 13

SAN KRISTOBALGO JAIAK

19:00. Txupinazoa.

19:15. Kalejira, Orkrestarekin.

19:30. Haurrentzako jolasak, Fray Martin Malleako parkean. Dardo txapelketa (16 urtetik beherakoentzat). Tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta banatuko dute, auzoko tabernetan eta Jai Batzordearen barran.

23:15. Kontzertua: Sonic Toys.

00:15. Kontzertua: Band Jovi (tributo).

AMAÑAKO JAIAK

14:30. Jubilatuentzako bazkaria, Amañako Laboral Kutxarekin elkarlanean.

MUSIKA

23:00. Eibarko Cielito Musika Bandaren gaueko kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

Zapatua 14

TAILERRA

10:00/14:30. "Emakume musulmanak, arrazakeria eta sexismoaren aurka". Kaleko sentsibilizatorako ekintza.

LAMBRETTA KONTZENTRAZIOA

10:00. Lambretta Eibar XV. Kontzentrazioa. Untzaga plazan, parte-hartzaileen aurkezpena eta Lambretta motorren erakusketa.

12:00. Motorren kalejira, herrian zehar.

12:30. San Kristobal auzora igoera.

13:00. Irteera, kostaldera.

14:00. Kalbaixora igoera.

14:30. Bazkaria, Azkenetxe jatetxean.

18:00. Trabakuara igoera eta Enrike Mugarzari omenaldia.

19:30. Eibarrera buelta eta afari-merienda.

00:15. Mucedades taldearen kontzertua, San Kristobal auzoan.

SAN KRISTOBALGO JAIAK

10:30. Marrazki lehiaketa, haurrentzat. Parte-hartzaile guztientzat opariak eta sariak irabazlearentzat.

11:30. Haurrentzako Moltó motorren kontzentrazio-lasterketa, opari eta sariekin.

12:15. Sandia-jana, Aizarnako parkean.

12:00. Desfilea/Aurkezpena. Lambretta motorren XV. Igoera San Kristobalera.

Hamaiketako parte-hartzaileentzat. Lambretta motorren erakusketa San Kristobalgo plazan.

12:45. Triki-poteoa.

18:00. Igel-toka txapelketa (16 urtetik beherakoentzat).

19:00. Dardo txapelketa, nagusientzat, San Kristobalgo plazan.

19:30. "Callejonada", Mariachi Domínguezekin.

21:00. Herri-afaria, plazoletan.

23:30. Extraño Veneno (kontzertu akustikoa).

00:15. Mucedades taldearen kontzertua.

02:00. Extraño Veneno (kontzertu elektrikoa).

02:30. Txokolate-jana.

Domeka 15

LAMBRETTA KONTZENTRAZIOA

10:30. Ezusteko ibilbidea.

14:30. Agurra, datorren urtera arte.

SAN KRISTOBALGO JAIAK

11:00. Ohe-elastikoak eta tirolina. Fray Martin Malleako parkean.

12:00. Hildakoen aldeko meza.

12:30. Paella txapelketa, plazoletan.

13:00. Trikipoteoa.

13:35. Luntxa.

13:45. Sari-banaketa ekitaldia.

17:30. Freskagarriak eta gozokiak banatuko zaizkie ume guztiei.

18:00. Zezentxo eta ponyak, Gorixoren eskutik.

19:00. Umeendako lehiaketa eta jolasetan parte hartu dutenentzat sariak.

19:30. DJ Araba festa.

20:30. Rifaren zozketa.

22:00. Jaien amaierako traka.

Erakusketak

Uztailaren 22ra arte:

- "JOSE KAREAGA ARTISAUA/ARTISTA 1930-2008" (*Oxford Aretoa -ZUMAIA-*)

Uztailaren 31ra arte:

- ARTURO GONZALEZ ASCASOREN ARGAZKIAK ETA M^a LUISA RUBIOREN POESIAK (*Eibarko Klub Deportiboa*)
- "SAHARAR KANPALEKUAK" JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKIAK (*El Ambigú kafetegia*)
- "ARGAZKI RALLYA 2018" (*Portalea jatetxea*)



Sagar Bitza, Kultura eta Kantabrian eros daitezke Arrateko bertso-afarirako sarrerak

...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Arrate egunaren bezperan egiten den bertso-afarirako sarrerak ohiko lekuetan, Sagar Bitza, Kultura eta Kantabrian egongo dira salgai bijhartik aurrera, nahi duten guztientzat, 32 eurotan. Aurten ere, ...eta kitto!-ko bertso-taldeak kartel biribila osatu du, maila goreneko laukotearekin: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso "beteranoei" Aitor Sarriegi beasaindarra batu zaiere orangoan eta gai-jartzailea, berriz, Jon Mikel Mujika izango da.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JARE, gure etxeko txinparta, domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Musu potoloa etxekuen partez.



Zorionak, ENEKO Galarraga Osa, hillaren domekan 3 urte beteko dozulako. Patxo haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak, ZOIHARTZE, domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, ANER!, atzo 8 urte egin zenduaz-eta. Segi hain alai eta jator. Musu asko etxekuen partez.



Zorionak, JOKIN, 11 urte ez diralako urtero betetzen. Etxeko guztien partez.



Zorionak, NAIA!, atzo 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez eta segi halako alaia izaten.



Zorionak, IBAI, hillaren 17xan 6 urte egingo dozuz-eta. Besarkada haundixa eta musu potolua etxekuen partez!



Zorionak, MARKEL, haraiñegun 2 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, ALAITZ, martitzenian 5 urte bete zenduaz-eta. Musu bat etxeko danon eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, OLATZ, atzo 12 urte bete zenduaz-eta. 12 musu potolo famelixaren partez.




Zorionak, JARE, domekan 6 urte beteko dozulako. Patxo potolo bat etxekuen partez.




Zorionak, MALEN!!!, martitzenian 2 urte bete zenduaz-eta!!! Patxo potolo bat etxekuen partez.




Zorionak, IZARO eta LUR, hillaren 2xan 9 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak EKHI (San Juan egunian 10 urte egin zenduaz-eta) eta PAULE (gaur 8 egiten dozuz) urtiak betetzarren! Askoko maite zaituztegu!!!!



Zorionak, UXUE (atzo, 8 urte) eta OINATZ (abuztuaren 9an, 5 urte). Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, NORA Mendizabal Osa, hillaren 16xan urtetxua beteko dozu-eta. Patxo haundi bat etxeko danon eta, batez be, zure ahizta Aneren partez!



Zorionak, ION (atzo, 31 urte) eta LOREA (bixar, 26 urte) urtiak betetzen dozue-eta!! Gurasuen partez!

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Buhardila alokatzen da Txontan. 5. pisua, igogailu barik. Prezio interesgarria. Tel. 626-144098.
- Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Igogailua. Erabat ekipatuta. Tel. 645-728317.
- Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 618-854121.
- Logela alokagai. Merkea eta eroldatze-ko aukerarekin. Tel. 632-271530.
- Pisua alokagai Ermuko erdialdean. Sukaldea, 2 logela, egongela, komuna eta despentsa. Tel. 669-209183.
- Logela alokatuko nioke lana duen pertsona arduratsu bati. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. Whats-App 688-811214.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Arrate Bide 17an. Tel. 639-491422.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 628-929146.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 612-245623.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-837079.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-413892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-398596.
- Eibarren bizi den gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-371332.
- Neska euskalduna eskeitzen da goizez umeak eskolara eramane eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 676-553093.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 612-273591.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-083081.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-914989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-505258.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 670-032797. Eliana.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-155413. Lina.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-534197.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 617-610706. Isabel.
- Neska eskaintzen da nagusiak (etxean zein ospitalean) edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-941067.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-709827.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-197831 eta 631-624304.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-993066.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-436462.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako (pisu, pegora, taberna edo soziedadeetan) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-426847.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Tel. 630-566556.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-271530.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-233514.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-587617.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-482203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-835745.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko (10:00ak arte). Tel. 617-628137.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da adineko pertsona zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egunean ordu batzuk. Berehala hasteko. Bidali erreferentziak: maunibi@yahoo.com
- Neska/emakume euskalduna behar da irailetik aurrera arratsaldean umea zaintzeko eta etxeko lanetarako. Deitu iluntzean. Tel. 676-105492.
- Banatzaileak behar dira ...eta kitto! aste-karia banatzeko. Tel. 943-200918 eta 943-206776. etakitto@gmail.com
- Pertsona behar da frutatadana batean lan egiteko. Esperientzia. Tel. 647-573356.
- Monitorea behar dira abentura jarduerarako (paintball). Tel. 660-450245. Ainhoa.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Bateria klaseak ematen ditut. Tel. 669-649535.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Esku-oheta salgai, gorputz eta aurpegiko tratamendu eta masajeetarako. Oso egoera onean. Tel. 696-359677.
- Binilozko disko, single eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.2. Eman

- Katakumeak oparitzen dira. Tel. 643-681509.

6.4. Bestelakoak

- Aulki gurgilduna behar dugu. Gehienez 60 zentimetroko zabalerakoa. Tel. 616-909630.
- Itzioko DBH 4. mailako liburak erosiko nituzke. Tel. 634-464120.
- Itzioko 4. Mailako liburak behar ditut. Tel. 688-890837.

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€-tik aurrera

SANTA FE 26.715€-tik aurrera

KONA 13.990€-tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gaintitu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamos, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Baskarretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4X2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4X2 ESSENCE 7 Jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4X2 ESSENCE (13.990€) autoentzati, BEZ, garraioa, matriculazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ri Aldatu. Plana aplikatu daleke erabiliko auto baren truke, 6 hilabeteKin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren 19ulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Críking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziario finantzia-erakundeak aztertu eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modelok: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziatzaioari lotua. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.



IES UNIBHI

HEZIKETA ZIKLOAK A ETA D EREDUAK

Matrikula epea: Uztailaren 12tik 18ra

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

- Praktikak Atzerrian (ERASMUS+)
- Lanbide-Heziketa Duala (HEZIBI)
- Ikaskuntzak Eszenatokiak
- Osasunarentzako Programa
- Enpresa Birtuala
- UNI Encounter
- UrratsBat
- Hizkuntzaren Normalkuntza
- Nazioarteko Ikasle-trukea
- Ikasle Lan Poltsa



www.facebook.com/iesunibhi/



[//twitter.com/UniEibarErmua](https://twitter.com/UniEibarErmua)



[/user/UniEibarErmua1](https://www.youtube.com/user/UniEibarErmua1)

www.uni.eus
idadzaritza@uni.eus
Tel. 943208444

HEZIKETA FISIKOA

- * Egokitze Fisikoa (*Goi maila*)
- * Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza (*Goi maila*)

INFORMATIKA

- * Sistema Mikroinformatikoa eta Sareak (*Erdi maila*)
- * Sareko Informatika Sistemen Administrazioa (*Goi maila*)
- * Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)
- * Web Aplikazioen Garapena (*Goi maila*)

MARKETING ETA MERKATARITZA

- * Merkataritza Iharduerak (*Erdi maila*)
- * Nazioarteko Merkataritza (*Goi maila*)

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

- * Administrazio Kudeaketa (*Erdi maila*)
- * Administrazioa eta Finantzak (*Goi maila*)
(goizez eta eskaintza partzalean arratsaldez)



IRAZABAL

clínica dental

Abuztuan 08:00-15:00



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com